HONETAN ERE... SEGÜRU

HAUR HEZKUNTZAKO JARDUERAK

ETA MUGI-KORTASUN SEGURUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

AURKEZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza curriculumak (237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa) aipatzen du osasunari zuzenean eragiten dioten arrisku-faktoreen balioespen doitua egitearen eta ohiko egoeretan prebentzioko eta segurtasuneko jokaerak izatearen beharra.

Bide hezkuntza deitu izan zaiona askotan bigarren mailan geratu izan da eskolatan beste edukien presioaren ondorioz. Hala ere, ikastetxe askok, ikasgelan trafiko istripuen prebentzioa landu behar dela eta, kanpoko eragileei beteta izan ohi duten egutegiko ordu batzuk uzten dizkiete, bide hezkuntzako jardueraren bat egiteko. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzan, haratago joan behar garela pentsatzen dugu. Mugikortasun segururako hezkuntza modu integratuan sartu behar da eskolako curriculumean. Hori justifikatzeko arrazoia soila da, baina aldi berean konplexua: heriotza goiztiarrak prebenitzea eta trafiko istripuetan izaten diren zauritu larrien zerrenda amaiezina geldiaraztea. Hezkuntza komunitate osoak bultzada handia eman diezaioke gure ahaleginari, eta erronka honetan elkarlanean aritu gaitezke.

Horretarako, jarduera batzuk proposatzen ditugu, curriculumeko arlo bakoitzeko berariazko edukiak prebentzioaren ikuspegitik ikasgelan garatzeko. Zu ere hezkuntzako eragile zarenez, funtsezkoa da trafiko istripuen epidemia isilarekin bukatzeko erronkan egin dezakezun ekarpena. Aldez aurretik eskerrik asko jarduera hauetara hurbildu eta ikasgelan gauzatzeagatik.

AURKIBIDEA

Trafiko istripuak, benetako arazoa, errealegia. [4]
Mugikortasun segururako hezkuntza, prebentziorako tresna. [5]
Mugikortasun segurua Haur Hezkuntzako curriculumean. [6]
Erlazionatutako jarduera eta curriculumeko edukiak. [7]

JARDUERAK

3-4 URTE

1 Oinez seguru ibiltzeko abestiak. [15]
2 Loreak kalean. [21]



4-5 URTE

3 Nahi dudan parkea. [25]
4 Geltokira goaz. [29]
5 Adi! Min har dezaket? [33]
6 Segurua da ala ez? [40]



5-6 URTE

7 Kalean. [48]
8 Autobusean! [54]
9 Sugeen hondartza. [62]
10 A zer balaztada! [66]
11 Igandea, jaieguna! [70]
12 A zer beldurra! [73]
13 Atsegina naiz. [78]
14 Aitona eta lainoa. [81]

TRAFIKO ISTRIPUAK, BENETAKO ARAZOA, ERREALEGIA

Garapenerako gure gizarte eredua motordun ibilgailuen erabilerari lotua izan da, historian. Hazi eta hazi ari dira, etengabe, bai ibilgailu kopurua bai urtean egindako kilometro kopurua eta errepideak ere. Mugikortasuna areagotu izanak ondorio negatiboak eragin ditu: kutsadura, auto ilarak eta, batez ere, trafiko istripuak.

Gizartea gero eta kontzienteagoa da trafiko istripuek eragindako biktima kopurua murriztu beharraz. Urtero gure inguruan izaten diren hildakoak eta larriki zauritutakoak **asko dira** eta ezin ditugu ahaztu trafiko istripuen zeharkako kaltetuak; senideak, lagunak… nolabait gizarte osoak sufritzen ditu ondorioak.

Honako galdera hau egiten diogu geure buruari: nola saihestu trafiko istripuak? Ez dago erantzun errazik, jakina, ez eta berak bakarrik istripuak saihestuko dituen ezer ere. Hala ere, guztiok onartzen dugu *giza faktorea* dela trafiko istripu gehienen atzean dagoena.

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak urte asko daramatza prebentzioa pertsonatik abiatuta lantzen. *Giza faktorea* deritzon horren ikuspegitik, prebentzioa jokaera bat dela ulertzen da. Jokaera honek arriskutsuak iruditzen zaizkigun egoerak saihestera garamatza, edo arrisku-egoera bat gauzatuz gero, ondorioak gutxitzera. Proposatzen dugun ereduak istripu hilgarriak ekidin nahi ditu, eta istripu larriak ere bai, jasan dituztenentzat eta bere ingurunekoentzat ondorio latzak eragiten dituzten istripuak. Prebentzioa gauzatzeko, pertsonak **arriskua ezagutu, hauteman eta saihesteko nahia** izan behar du.

MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA, PREBENTZIORAKO TRESNA

Istripuen prebentziorako gure hezkuntza eredua jasotzen duen dokumentua «*Mugikortasun Segururako Hezkuntza. Konpetentzien Gida*[1]» da.

Gida honek hezkuntza-ibilbide integral bat finkatzen du eta mugikortasun segururako hezkuntzan zer, nola eta noiz ekin zehazten du. Dokumentuak pertsonek bizi osorako trafiko istripuak saihestu edo istripu hauen ondorioak gutxitzeko beharko dituzten ezagutza, trebetasun eta jarrerak zehazten ditu.

Mugikortasun segururako oinarrizko zazpi gaitasun edo konpetentzia zehaztu dira gidaliburuan:

- Arreta
- Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia
- Ingurunearen azterketa
- Taldeko presioarekiko erresistentzia
- Egokitzapena eta malgutasuna
- Neure burua eta nire emozioak kudeatzea
- Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea

[1] Herrizaingo Saila (2008). *Mugikortasun Segururako Hezkuntza – Konpetentzien gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

MUGIKORTASUN SEGURUA HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUMEAN

Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza curriculumak (237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa) 3. artikuluan bere xedea jasotzen du:

> *Haur guztien garapen osoa eta orekatua lortzen laguntzea da Haur Hezkuntzaren xedea, garapen horren dimentsio guztietan. Oinarrizko konpetentziak garatuz lortu nahi da hori, familiekin lankidetza estuan arituta.*

Mugikortasuna bizitzako oinarrizko esperientzia bat da, pertsona ororentzat da erronka bat eta interesa pizten du. Mugikortasunaren bidez lehen aldiz bizitzen ditugu kontrol, autonomia eta harreman egoerak… Modu honetan, prebentzioa eguneroko jarrera bilakatzen da, oso benetakoa eta konkretua.

Haur guztiek dute kalean zehar ibiltzearen esperientzia, kalea gurutzatzearena, auto baten bidaiatzearena edo trafikoa duen kale baten ondoko parkean jolastearena. Eguneroko egoera hauetatik abiatzea erraza da autobabesarekin zerikusia duten hainbat ikaspen eta hausnarketa lantzeko.

Haur Hezkuntzako curriculumeko gaitasun edo konpetentziak estuki lotuta daude mugikortasun segururako hezkuntzako gaitasunekin. Horren adibide, Haur Hezkuntzako curriculumeko hurrengo aipuak:

> • *Oinarrizko konpetentziak eskuratzeko funtsa ezartzen eta lantzen da hezkuntza-etapa honetan; hau da, bizitzako eremu eta egoera guztietan arazoei prestutasunez erantzuteko konpetentzien oinarriak ezartzen dira.* (Hitzaurrea).

Zalantza barik, mugikortasuna bizitzako eguneroko esperientzia bat da.

• *Oinarrizko zehar-konpetentzia deritze bizitzaren esparru eta egoera guztietan arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar diren konpetentziei, hala esperientziaren eremuko egoeretan, nola eguneroko bizitzaren egoeretan.*

Honako hauek dira oinarrizko zehar-konpetentziak: hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzea, ikasten eta pentsatzen ikastea, elkarbizitzen ikastea, ekimenerako eta ekiteko espirituarako konpetentzia eta izaten ikasteko konpetentzia. (6. artikulua).

Mugikortasun segururako hezkuntza, beraz, pertsonaren hezkuntza integralerako zehar-eduki bat da, hurrengo arrazoiengatik:

– Autobabesa, besteekiko errespetua eta arauak errespetatzea bezalako jokaerak sustatzen ditu.

– Emozioen kudeaketa, elkarlana eta arreta osoa kudeatu beharreko egoeretan nola jokatu lantzen du.

• *…egoera hauek planteatu behar zaizkie haurrei: norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta gogoak modu asertiboan adierazi, eta, era berean, gainerako pertsonen sentimenduak, pentsamenduak eta desirak adi entzuteko aukera ematen duten egoerak; taldean ikasteko eta lan egiteko egoerak, nork bere gain hartzeko norberari dagozkion ardurak eta elkarlanean aritzeko helburu komun bati begira; giza eskubideei dagozkien printzipio etikoak eta bizikidetzarako gizarte-aztura oinarrizkoen ondoriozko arau sozialak betez jokatzen ikasteko egoerak.* (Elkarbizitzarako konpetentzia).

Printzipio hauek zuzenean aplikatu daitezke kalean ematen den pertsonen eta ibilgailuen arteko bizikidetzari. Bertan jokaera seguruak jarraitzeko, entzutea eta autobabesa garatzea beharrezkoa izango da.

Beraz, esan daiteke mugikortasun segururako hezkuntza Haur Hezkuntza curriculumeko ikasketa-eremu guztiz zeharkakoa dela, eta bere edukiak erraz erlaziona daitezkeela bi esperientzia-eremuekin (*Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagutza eta Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena*).

Hau dena kontuan hartuz, dokumentu honek Haur Hezkuntzako bigarren zikloko haurrekin landu daitezkeen hamalau jarduera proposatzen ditu:

- 3-4 urteko haurrentzat bi jarduera, eremu bakoitzeko bat.
- 4-5 urteko haurrentzat lau jarduera, eremu bakoitzeko bi.
- 5-6 urteko haurrentzat zortzi jarduera, eremu bakoitzeko lau.

Adinaren araberako sailkapena malgua da eta jarduera gehienak gertuko adin-tartean ere erabil daitezke.

ERLAZIONATUTAKO JARDUERAK ETA CURRICULUMEKO EDUKIAK

Proposatutako jarduerak Hau Hezkuntzako curriculumean nola txertatzen diren erakusten dute hurrengo taulek.

HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLORAKO SORTUTAKO JARDUEREN LABURPEN-TAULA, 3-4 URTE

JARDUERAREN ZENBAKIA ETA IZENBURUA	1. JARDUERA **Oinez seguru ibiltzeko abestiak**	2. JARDUERA **Loreak kalean**
ESPERIENTZIA EREMUA	Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezaguera.	Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.
CURRICULUMEKO HELBURUAK	Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.	Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilita, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.
CURRICULUMEKO EDUKIAK	1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea. • Jolasaren bidez (jolas motor, zentzumenezko, sinboliko eta arautuen bidez) arakatzea ingurunea. • Disfrutatzeko eta harremanak izateko bitarteko gisa balioestea jolasa.	Eduki komunak. • Ideiak sortu eta adieraztea. 1. Multzoa: Hitzezko komunikazioa. • Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab. 4. Multzoa: Arte-komunikazioko beste modu batzuk. • Informazio, beharrizan, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea eguneroko bizitzako egoeretan. • Arte-adierazpenak baliatuz adieraztea eta komunikatzea gertakariak, sentimenduak, emozioak, bizipenak eta ametsak.
ERLAZIONATUTAKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	Arreta. 1. Maila *(Sentikorra da oinarrizko zentzumenen bidez jasotako informazioekiko).*	Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia. 1. Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*
JARDUERAREN HELBURUAK	• Kalean segurtasunez mugitzeko kontuan izan beharreko informazioa berrikustea. • Ohiko joan-etorrietan gure arreta mantentzeko garrantzia agerian uztea. • Kalean arriskuak daudela konturatzea. • Babesa eta autobabesa barneratzea.	• Arriskutsuak izan daitezkeen espazio eta elementuak hautematea. • Ingurune seguruak eta ez-seguruak identifikatzea. • Jokaera ezberdinez jabetzea, jokaera seguruak identifikatzea jokaera hauen bizipena baliatuz.

HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLORAKO SORTUTAKO JARDUEREN LABURPEN-TAULA, 4-5 URTE

JARDUERAREN ZENBAKIA ETA IZENBURUA	3. JARDUERA **Nahi dudan parkea**	4. JARDUERA **Geltokira goaz**
ESPERIENTZIA EREMUA	Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezaguera.	Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezaguera.
CURRICULUMEKO HELBURUAK	Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahal-menak eta mugak deskubritzeko.	Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.
CURRICULUMEKO EDUKIAK	1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea. • Osasunari zuzenean eragiten dioten arrisku-faktoreen balioespen doitua egitea eta prebentzioko eta segurtasuneko portaerak izatea ohiko egoeretan. • Eskuzko eragiketak koordinatu eta kontrolatzea eta egokitasunez erabiltzea sarri erabiltzen diren tresnak.. 2. Multzoa. Hartu-emanak gizarte-ingurunean. • Haurrak parte hartzen duen gizarte taldeetan ezartzen diren harreman afektiboen garrantzia balioestea.	1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea. • Osasunari zuzenean eragiten dioten arrisku-faktoreen balioespen doitua egitea eta prebentzioko eta segurtasuneko portaerak izatea ohiko egoeretan.
ERLAZIONATUTAKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia. 1. Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*	Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia. 1. Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*
JARDUERAREN HELBURUAK	• Parkean eman daitezkeen jokaera arriskutsuak hautematea. • Konfiantza, elkarrizketa eta kooperazio-harremanak eraikitzea, espazioak eta eginkizunak partekatuz. • Babesteko, jokaera seguruzko arauak ezartzeko beharra hautematea.	• Bideko arrisku-egoerak hautematea. • Mugikortasunezko ohiko jardueretan jokaera seguruak identifikatzea. • Itxarotea kalean beharrezkoa eta positiboa dela konturatzea. • Oinez mugitzeko heldu baten eskutik joan beharra dagoela konturatzea.

.

JARDUERAREN ZENBAKIA ETA IZENBURUA	5. JARDUERA **Adi! min har dezaket?**	6. JARDUERA **Segurua da ala ez?**
ESPERIENTZIA EREMUA	Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.	Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.
CURRICULUMEKO HELBURUAK	• Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatze-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko. • Gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea eguneroko bizitzako egoeretan, eta hartu-eman horietako arauak ikastea, komunikatu nahi dena interpretatzeko.	• Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilita, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.
CURRICULUMEKO EDUKIAK	Eduki komunak. • Ideiak sortu eta adierazteas 1. Multzoa: Hitzezko eta idatzizko komunikazioa. • Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab. 4. Multzoa: Arte-komunikazioko beste modu batzuk. • Arte-adierazpenak baliatuz adieraztea eta komunikatzea gertakariak, sentimenduak, emozioak, bizipenak eta ametsak.	1. Multzoa: Hitzezko eta idatzizko komunikazioa. • Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab. 3. Multzoa: Matematika-hizkuntza. • Objektuen eta materialen ezaugarri batzuk (kolorea, forma, horien egitekoa, etab.) ezagutzea eta bereiztea. • Objektuen arteko antzekotasunak eta diferentziak hautematea. • Multzoak zenbakitu gabe kuantifikatzea (asko, gutxi, etab.). • Berdintasun eta desberdintasuneko loturak egitea (berdinak dira, gehiago dira, gutxiago dira…). 4. Multzoa: Arte-komunikazioko beste modu batzuk. • Arte-adierazpenak baliatuz adieraztea eta komunikatzea gertakariak, sentimenduak, emozioak, bizipenak eta ametsak.
ERLAZIONATUTAKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	Neure burua eta nire emozioak kudeatzea. 1. Maila *(Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketela).* Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia. 1. Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*	Arreta. 1. Maila *(Sentikorra da oinarrizko zentzumenen bidez jasotako informazioekiko).*
JARDUERAREN HELBURUAK	• Arriskua eragin dezaketen espazio eta elementuak hautematea. • Ingurune seguruak eta ez-seguruak identifikatzea. • Jokaera seguru eta jokaera arriskutsuez jabetzea.	• Arriskutsuak izan daitezkeen espazio eta elementuak hautematea.

HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLORAKO SORTUTAKO JARDUEREN LABURPEN-TAULA, 5-6 URTE

JARDUERAREN ZENBAKIA ETA IZENBURUA	7. JARDUERA **Kalean**	8. JARDUERA **Autobusean!**
ESPERIENTZIA EREMUA	Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.	Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezaguera.
CURRICULUMEKO HELBURUAK	Ekimenak abiatzea eta norberaren ekintzak planifikatzea eta sekuentziatzea, egiteko errazak edo arazo-egoerak ebazteko eta nork bere buruaren gaineko konfiantza-sentimendua handitzeko; frustrazio txikiak onartzea, sortzen zaizkion zailtasunak gaintzeko jarrera adieraztea eta gainerako pertsonengandik behar den laguntza bilatzea.	Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatze-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.
CURRICULUMEKO EDUKIAK	1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea. • Jolas sinbolikoaren bidez, egoera errealak edo irudizkoak eta pertsonaiak antzeztea. • Jolas-arauak ulertzea eta onartzea. Jolasaren premia balioestea eta hura erregulatzen parte hartzea. • Antolatzeko, konstantea izateko, arreta jartzeko, ekimena hartzeko eta ahalegintzeko ohiturak eta jarrerak lantzen hastea.	Eduki komunak. • Gorputza eta emozioak autoerregulatzea. 1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea. • Norberaren ezaugarriak, ahalmenak eta mugak balioetsi eta, arian-arian, onartzea. • Eguneroko bizitzako jarduerak (jatorduak, atsedenak, garbitasuna eta joan-etorriak) antolatzeko ezarrita dauden arauak onartzea eta balioestea.
ERLAZIONATUTAKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	Ingurunearen azterketa. 1. Maila *(Hurbileko inguruneak ematen dizkion informazioak biltzen ditu eta egoera horri lotutako portaera segurua hautatzen du).* Egokitzapena eta malgutasuna. 1. Maila *(Bide-ingurunea dinamikoa eta aldakorra dela konturatzen da, eta oinarrizko ohitura seguruak hartzen ditu).*	Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia. 1. Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*
JARDUERAREN HELBURUAK	• Sentsazio fisiko eta emozionalekin konektatzea. • Segurtasun eta arrisku-sentsazioak bereiztea. • Kaleko egoerak behatu eta egoera bakoitzean nola jokatu barneratzea. • Jokabide seguruei buruz hausnarketa egitea.	• Arrisku egoeran izatearen sentsazioa sentitzea. • Egunerokotasunean kalteak ekiditeko prebentzio-jarrerak barneratzea.



JARDUERAREN ZENBAKIA ETA IZENBURUA	9. JARDUERA **Sugeen hondartza**	10. JARDUERA **A zer balaztada!**
ESPERIENTZIA EREMUA	Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.	Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.
CURRICULUMEKO HELBURUAK	Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatze-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.	Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.
CURRICULUMEKO EDUKIAK	1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea. • Gorputzak oinarrizko zer beharrizan dituen jakitea eta haiek adieraztea, erregulatzea eta kontrolatzea. Konfiantza izatea norberak beharrizan horiek asetzeko duen ahalmenean. 3. Multzoa. Hartu-emanak ingurune fisiko eta naturalarekin. • Naturaren eta izaki bizidunen gaineko jakin-mina, interesa eta errespetua izatea. Jarrera kritikoa izatea ingurunean egiten diren jarduera kaltegarriekiko.	Eduki komunak. • Gorputza eta emozioak autoerregulatzea. 1. Multzoa: Nortasuna eraikitzea. • Osasunari zuzenean eragiten dioten arrisku-faktoreen balioespen doitua egitea eta prebentzioko eta segurtasuneko portaerak izatea ohiko egoeretan.
ERLAZIONATUTAKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	Neure burua eta nire emozioak kudeatzea. 1. Maila *(Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketelal).*	Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia. 1. Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*
JARDUERAREN HELBURUAK	• Kalean ematen diren arrisku-jokaerak identifikatzea. • Mugikortasunerako prebentziozko estrategiak praktikatzea. • Jokaera seguruak gogoratzea.	• Arriskuaren sentsazioa nabaritzea. • Beldurra arrisku baten abisua ematen digun seinale positibo bezala identifikatzea. • Arriskua aurreikusteko jokaera seguruak identifikatzea.



JARDUERAREN ZENBAKIA ETA IZENBURUA	11. JARDUERA **Igandea, jaieguna!**	12. JARDUERA **A zer beldurra?**
ESPERIENTZIA EREMUA	Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.	Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.
CURRICULUMEKO HELBURUAK	Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilita, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.	Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.
CURRICULUMEKO EDUKIAK	4. Multzoa. Arte-komunikazioko beste modu batzuk. • Arteko trebetasun eta teknika oinarrizkoak erabiltzen hastea.	Eduki komunak. • Gorputza eta emozioak autoerregulatzea. 4. Multzoa. Arte-komunikazioko beste modu batzuk. • Genero eta estilo askotako obra batzuk entzutea.
ERLAZIONATUTAKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	Ingurunearen azterketa. 1. Maila *(Hurbileko inguruneak ematen dizkion informazioak biltzen ditu eta egoera horri lotutako portaera segurua hautatzen du).*	Neure burua eta nire emozioak kudeatzea. 1. Maila *(Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketela).*
JARDUERAREN HELBURUAK	• Haurrek autoan doazenean zer egiten duten identifikatzea. • Autoan bidaiatzean egoera arriskutsuak eragin ditzaketen jokaerak hautematea. • Autoan bidaiatzean jarraitu beharreko jokaera zuzenak identifikatzea.	• Beldurraren emozioarekin konektatzea, kalean edo beste edozein espazio publikotan bizi izandako egoerekin lotura eginez. • Espazio publikoetan ematen diren ekintza eta jokaera seguruek transmititzen duten sentsazio atseginaz jabetzea.



JARDUERAREN ZENBAKIA ETA IZENBURUA	13. JARDUERA **Atsegina naiz**	14. JARDUERA **Aitona eta lainoa**
ESPERIENTZIA EREMUA	Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.	Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.
CURRICULUMEKO HELBURUAK	Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.	Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.
CURRICULUMEKO EDUKIAK	1. Multzoa. Hitzezko eta idatzizko komunikazioa. • Pertsona helduek eta haurrek eguneroko bizitzako egoeretan dituzten komunikazio-xedeak ulertzea eta, arian-arian, horietara egokitzea.	1. Multzoa. Hitzezko eta idatzizko komunikazioa. • Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab. 4. Multzoa: Arte-komunikazioko beste modu batzuk. • Genero eta estilo askotako obra batzuk entzutea.
ERLAZIONATUTAKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	Neure burua eta nire emozioak kudeatzea. 1. Maila *(Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketela).*	Neure burua eta nire emozioak kudeatzea. 1. Maila *(Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketela).*
JARDUERAREN HELBURUAK	• Norberaren emozio eta sentsazioez jabetzea. • Haserre-sentsazioaz hautematea. • Adeitasun-sentsazioaz hautematea.	• Beldur garenean zer sentitzen dugun esploratzea. • Beldur garenean izan ditzakegun erreakzio oldarkorrak identifikatzea. • Arnasketa kontzientea praktikatzea.



3-4 URTE

1. JARDUERA

OINEZ SEGURU IBILTZEKO ABESTIAK

Iraupena gutxi gorabehera:

Ordubete.

Curriculumeko eremua:

Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezaguera.

Curriculumeko helburua:

Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.

Curriculumeko edukiak:

1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea.

- Jolasaren bidez (jolas motor, zentzumenezko, sinboliko eta arautuen bidez) arakatzea ingurunea.
- Disfrutatzeko eta harremanak izateko bitarteko gisa balioestea jolasa.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:

Arreta.

1 Maila *(Sentikorra da oinarrizko zentzumenen bidez jasotako informazioekiko).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Jarduerak bi fase ditu. Lehen fasean istorio bat irakurriko du irakasleak. Istorioak kaleko ingurunean dauden elementuak ditu. Istorioko pertsonaiek jokaera seguruak eta jokaera arriskutsuak bereizten dakite.

Bigarren fasean, haurrek olerki erraz batzuk abestuko dituzte musika tresna baten erritmora. Aldi berean beraien ohiko joan-etorrietan ikusten dituzten kaleko elementu batzuk identifikatuko dituzte.

Olerkiek mugikortasun egoera sinple batzuk azaltzen dituzte, modu dibertigarrian jokaera arriskutsuen eta seguruen arteko aldea agerian jarriz.

Irudi batzuk oinezkoen mugikortasun segururako garrantzitsuak diren elementuak erakusten dituzte.

HELBURUAK:

- Kalean segurtasunez mugitzeko kontuan izan beharreko informazioa berrikustea.
- Ohiko joan-etorrietan gure arreta mantentzeko garrantzia agerian uztea.
- Kalean arriskuak daudela konturatzea.
- Babesa eta autobabesa barneratzea.

METODOAK:

Irakurketa. Abestiak.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Ipuina: *Mikelatsen helburua: Mugikortasun segurua.*
- Danborra edo beste musika tresnaren bat olerkiak laguntzeko eta erritmoa markatzeko.
- Irudiak.

JARDUERAREN GARAPENA:

Jarduera bi une edo fasetan garatzen da:

1. FASEA

Irakasleak Mikeatsen istorioa irakurriko du *(1. Eranskina).*

Haurrek ipuinaren bukaeran dagoen estrofa buruz ikasiko dute (2. eranskina). Estrofa hau musika tresna ezberdinez lagun daiteke, erritmoa markatuz eta giroa sortuz.



2. FASEA

Sortutako jolas eta alaitasun giroan irakasleak olerki bi irakurriko ditu. Haurrek irakasleak esandakoa errepikatuko dute, dantza eginez, musika tresnen erritmoa jarraituz:

1. Erosketak egitera goaz supermerkatura

Erosketak egitera goaz

Oinezkoen pasabidetik igaro behar

Semaforoa gorri, kontuz!, egon geldi

Semaforoa berde, ondo!, aurrera segi

Kotxeei adi beti

Haiek geratu arte ni geldi.

2. Pilotak ihes egin du

Egunero parkera

pozik eta ondo pasatzera

Bidean espaloitik

aitaren eskutik heldurik

Pilota erortzen bazait

aitak hartuko du, ni lasai.

3. eranskinean olerkian azaltzen diren elementu batzuen irudiak daude. Irakasleak haur bakoitzari irudi bat emango dio. Olerkia esatean elementu hauek aipatzen direnean haurrek irudiak altxatuko dituzte, abestu eta dantzatzen duten bitartean.

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

- Oinez ibiltzean espaloitik, eta laguntzen dien helduaren eskutik helduta ibili behar dira.
- Kalean pertsonak, kotxeak, bizikletak, patineteak, motorrak eta kamioiak daude eta denak mugitzen dira.
- Ez dute inoiz kalea bakarrik gurutzatu behar.
- Edozer gertatuta ere, lasai ibili beharra dago eta ez da inoiz arinegi jokatu behar.



1. JARDUERA

OINEZ SEGURU IBILTZEKO ABESTIAK

1. ERANSKINA

MIKELATSEN HELBURUA: MUGIKORTASUN SEGURUA. LOTURA

http://trafikoa.bidehezkuntza.org/docs/infantil3_eu.pdf

1. JARDUERA

OINEZ SEGURU IBILTZEKO ABESTIAK

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

3-4 urte

2. ERANSKINA

ABESTEKO ESTROFA. MIKELATSEN IPUINA



Tipi, tipi, taina,
bukaera bikaina,
tipiti, tipi, tain,
nire nota: bikain!





1. JARDUERA

OINEZ SEGURU IBILTZEKO ABESTIAK

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

3-4 urte

3. ERANSKINA

ISTORIORAKO IRUDIAK. EROSKETAK EGITERA GOAZ SUPERMERKATURA









1. JARDUERA

OINEZ SEGURU IBILTZEKO ABESTIAK

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

3-4 urte

3. ERANSKINA. ISTORIORAKO IRUDIAK. EROSKETAK EGITERA GOAZ SUPERMERKATURA







1. JARDUERA

OINEZ SEGURU IBILTZEKO ABESTIAK

AURKIBIDEA

2. JARDUERA LOREAK KALEAN

Iraupena gutxi gorabehera:

Ordubete.

Curriculumeko eremua:

Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

Curriculumeko helburua:

Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilita, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.

Curriculumeko edukiak:

Eduki komunak.

- Ideiak sortu eta adieraztea.

1. Multzoa: Hitzezko komunikazioa.

- Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab.

4. Multzoa: Arte-komunikazioko beste modu batzuk.

- Informazio, beharrizan, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea eguneroko bizitzako egoeretan.
- Arte-adierazpenak baliatuz adieraztea eta komunikatzea gertakariak, sentimenduak, emozioak, bizipenak eta ametsak.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:

Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

1 Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Loreen antzezpena eta jolasaren bidez, haurrek hainbat arrisku egoera aztertuko dituzte, eta egoera horietan ematen diren jokaera seguruak ere bai. Ume batzuek pertsonaia eta egoerak antzezten dituzten bitartean, beste guztiek jokaera seguruen inguruko ekarpenak egingo dituzte. Gero paperak trukatuko dituzte haurrek, parte-hartzaile guztiek jokaera seguru eta ez-seguruen bizipena izateko.

HELBURUAK:

- Arriskutsuak izan daitezkeen espazio eta elementuak hautematea.
- Ingurune seguruak eta ez-seguruak identifikatzea.
- Jokaera ezberdinez jabetzea, jokaera seguruak identifikatzea jokaera hauen bizipena baliatuz.

METODOAK:

Antzezpena.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Koloretako klarionak.
- Korolak egiteko koloretako paperak.
- Guraizeak.
- Korola-patroia.
- Arbela.
- Kartulina gorria eta berdea.

JARDUERAREN GARAPENA:

Ikasgelan espazio bat prestatuko da: kale bat eta bi espaloi izango ditu espazio honek. Espaloietan loreak margotuko dira, parterreak izango balira bezala. Kalean zebra-bide bat eta semaforodun oinezkoen pasabide bat marraztuko dira.

Jarduera egiteko, aurretiaz loreen korolak eginak izan beharko dituzte gelan, irakasleak haurrekin batera prestatu beharko ditu korola hauek.

Ondoren jarduera azalduko du irakasleak:

Kale eder baten gaude, lore alai eta koloretsuz betetako kale baten.

Lore txiki bat etorri da. Bere lagun batengana dator, lagunarekin batera jolasteko asmoz.

Lore txikiaren laguntxoa beste espaloiko loreen artean dago.

1. FASEA

Irakasleak galdetuko du:

- Loretxoak berak bakarrik gurutzatu dezake kalea?
- Nork lagunduko dio?

Irakasleak bi lore aukeratuko ditu, pertsona helduak bezalakoak izango dira. Adibidez: Ekilore jauna eta Bitxilore anderea.

- Nola gurutzatu beharko dute kalea autoek, motorrek, bizikletek edo patineteek ez harrapatzeko?

Goazen kalea gurutzatzera:

Lau haur loreak izango dira, eta horretarako prestatuta dauden korolak jantziko dituzte.

Zu kalea gurutzatu nahi duen loretxoa izango zara, zu Ekilore jauna, zu Bitxilore anderea eta zu loretxoaren laguntxoa izango zara eta horregatik kalearen beste aldean jarriko zara.

Beste lau haur ibilgailuak izango dira; autoa, motorra, bizikleta eta patinetea.

Haur bat oinezkoen semaforoa izango da eta horregatik bi kartulina izango ditu, aurpegi gorriarekin bat eta aurpegi berdearekin bestea.

Beste taldekideak espazioaren inguruan eseriko dira, borobilean. Eszenatokiko elementuak hauek izango dira: kalea, marraztutako loreak, aktoreak parterre baten eserita, ibilgailuak eta oinezkoen semaforoa.



2. FASEA

Haurrek korolak jantziko dituzte eta antzezpena hasiko da. Hasieran irakasleak ez du argibiderik emango. Hiru loreek beraien irizpide propioen arabera jokatuko dute.

Beste taldekideek jokaera arriskutsuak identifikatuko dituzte, eta beraiek nola jokatuko luketen esango dute.

Haurren batek bere ustez jokaera segurua dena egiteko aukera izan dezake.

Antzezpena behin eta berriz egingo da haurrak nekatu arte.

Antzezpenen bidez jokaera seguruak eta jokaera arriskutsuak identifikatuko dira.

3. FASEA

Irakasleak galdetuko du:

– Zeintzuk dira kalea seguru gurutzatzeko moduak?

Denen artean kalea seguru gurutzatzeko egin behar dena errepasatuko dute:

- Pertsona heldu batekin gurutzatuko dugu kalea.
- Beti gurutzatuko dugu kalea zebra-bidetik edo semaforodun oinezkoen pasagunetik.
- Zebra-bidean, gurutzatu aurretik, ibilgailuak geldi dauden begiratuko dugu.
- Ezkerrera, eskuinera eta berriz ere ezkerrera begiratuko dugu.
- Oinezkoen semaforoa berde egon arte itxarongo dugu.
- Semaforoa berde dagoenean ibilgailuak geldi dauden begiratuko dugu.

Jarduera bukatzeko antzezpena egin duten lagunei txalo zaparrada bat eskainiko die taldeak.

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

- Kalean zehar lasai eta korrika egin gabe joango gara.
- Adi egongo gara beti gertatzen ari denaz konturatzeko.
- Bidea beti pertsona heldu batekin gurutzatuko dugu.
- Bidea gurutzatzeko, zebra-bidea edo oinezkoen semaforoa erabiliko ditugu.



4-5 URTE

3. JARDUERA NAHI DUDAN PARKEA

Iraupena gutxi gorabehera:
Bi ordu.

Curriculumeko eremua:
Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezaguera.

Curriculumeko helburua:
Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.

Curriculumeko edukiak:
1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea.
- Osasunari zuzenean eragiten dioten arrisku-faktoreen balioespen doitua egitea eta prebentzioko eta segurtasuneko portaerak izatea ohiko egoeretan.
- Eskuzko eragiketak koordinatu eta kontrolatzea eta egokitasunez erabiltzea sarri erabiltzen diren tresnak.

2. Multzoa. Hartu-emanak gizarte-ingurunean.
- Haurrak parte hartzen duen gizarte taldeetan ezartzen diren harreman afektiboen garrantzia balioestea.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:
Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.
1. Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Jarduera honen mamia elkarrizketa da. Haurrek normalean elkarbanatzen dituzten espazioei buruzko pertzepzioak eta bizipenak partekatuko dituzte. Elkarrizketa bidez ohiko jarrera eta jokaerak azaleratuko dira eta jokaera seguru eta arriskutsuen arteko bereizketa egingo dute. Bestetik, adostutako arauak irudikatzeko seinaleen hizkuntza erabiltzea proposatuko du jarduerak.

HELBURUAK:

- Parkean eman daitezkeen jokaera arriskutsuak antzematea.
- Konfiantza, elkarrizketa eta kooperazio-harremanak eraikitzea, espazioak eta eginkizunak partekatuz.
- Babesteko, jokaera seguruzko arauak ezartzeko beharra antzematea.

METODOAK:

Behaketa. Elkarrizketa gidatua. Marrazketa.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Mugikorra, parkean argazkiak egiteko.
- "*Nahi dudan parkea*" marrazteko paperezko orri handia.
- Pintura eta pintzelak.

JARDUERAREN GARAPENA:

1. FASEA
BEHAKETA. PARKERA IRTEERA.

Jarduera hasteko eskolatik gertuen dagoen parkera irteera egingo da.

Gaur parkera goaz! Jolastera joango gara eta parkea nolakoa den ikustera.

Parkean, ingura begiratuz elkarrizketa hasiko da:

- Espazio publiko horretan dauden elementuetan erreparatuko dugu: jolasak, monumentuak, iturriak, zuhaitzak, loreak, paperontziak, seinaleak, bidexkak, bizikletak.
- Jolasak: Jolasen ezaugarriak eta elementu seguru eta arriskutsuak.

Parkean dauden pertsonei ere erreparatuko diegu, nolakoak diren eta zer egiten ari diren.

Irakasleak aipatutako elementuen argazkiak egingo ditu, ikasgelan parkean ikusitako gogoratzeko eta gerora jardueraren bigarren fasean lanketa egiteko.

2. FASEA
ELKARRIZKETA GIDATUA.
ZER IKUSI DUGU PARKEAN?

Zirkuluan jarriko gara.

Irakasleak elkarrizketa hasiko du, mota honetako galderak eginez:

- Parkea gustatu zaizue?
- Handia edo txikia da parkea?
- Bizikletan eta patinetean ikusi al dugu inor?
- Parkean arriskurik izan da?

Haurrek bizitako esperientzia gogoratzeko argazkiak begiratuko dituzte eta deigarriena iruditu zaiena aipatuko dute; zer gustatu zaien, zer ez, zeren falta sumatu duten.

Elkarrizketa jokaera seguruen gainean hitz egitera bideratuko da.

- Zer egin dezakegu seguru jolasteko?
- Zein jokaera den arriskutsua eta ez dugun egin behar gogoraraziko diguten seinaleren bat marraztu dezakegu?

1. eranskinean jokaera arriskutsuak, jokaera seguruak eta asma daitezkeen seinale batzuk zerrendatzen dira, lagungarri.

3. JARDUERA
NAHI DUDAN PARKEA





3. FASEA
MARRAZKETA. NAHI DUDAN PARKEA

Haurrek bakarka marraztuko dituzte desiratuko luketen parke batek izango lituzkeen elementuak: loredun zuhaitzak, txirristak, tunelak, jolasteko etxetxo bat, iturri bat, izozki denda bat… Gero, orri handi baten, denen artean, nahi duten parkea osatuko dute, aurrerago marraztutako elementuak moztu eta orri handian itsatsiz eta pintzelekin kolorea eta xehetasunak gehituz.

Seinaleak eta oharrak ere marraztuko dira orrian, espazio honetan zer egin eta zer ez egin gogoraraziko dituztenak.

Jarduera bukatzeko, horma-irudia eskolako horma egoki baten eskegiko da, ikusgai egon dadin.

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

- Parkea leku atsegina dela jolasteko eta elkarbanatzeko.
- Zenbait ekintzek mina eragin dezaketela, adibidez:
  - Iturrietara, hormetara edo tontorretara igotzea.
  - Patinetean edo bizikletan ibiltzea arreta jarri gabe.
  - Jolaslekutik kanpo irtetzea heldu baten laguntza barik.
  - Ibilgailuak pasatzen diren toki baten pilotaren bila korrika joatea.
- Jokaera seguruak identifikatzen. Adibidez:
  - Bizikletan edo patinetean doazenean kaskoa janztea.
  - Eskailerak astiro jaistea.
  - Jolaslekuan itxarotea laguntzen gaituen heldua etorri arte.
  - Parkean dauden seinale eta argibideak jarraitzea.
- Ekidin behar diren jokaera arriskutsuak gogoraraziko dituzten seinaleak sortzen:
  - Erortzeko arriskua.
  - Korrika ez egitea.
  - Kaskoa janztea.

1. ERANSKINA

NAHI DUDAN PARKEA

Jokaera arriskutsu eta seguru batzuk zerrendatzen dira jarraian.

Zerrenda parketik egindako ibilaldiaren ostean HAURREK IRADOKITAKO JOKAEREKIN OSOTUKO da.

JOKAERA ARRISKUTSUAK

- Patinete edo bizikletan joatea kaskorik gabe.
- Egokitutako gunetik kanpo pilotaren bila joatea.
- Jolaslekutik kanpo bakarrik ibiltzea.

JOKAERA SEGURUAK

- Kaskoa beti janztea.
- Egokitutako guneetan jolastea.
- Parketik laguntzen digun pertsonarekin irtetzea.

ASMA DITZAKEGUN SEINALEAK

- Erortzeko arriskua.
- Kaskoa jantzi.
- Txirristara banaka igo.
- Zabuan norbait badabil ez pasatu gertutik.
- Askaria bukatu jolasten hasi aurretik.

4to JARDUERA GELTOKIRA GOAZ

Iraupena gutxi gorabehera:
Ordubete.

Curriculumeko eremua:
Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezaguera.

Curriculumeko helburua:
Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.

Curriculumeko edukiak:
1. Multzoa: Nortasuna eraikitzea.
- Osasunari zuzenean eragiten dioten arrisku-faktoreen balioespen doitua egitea eta prebentzioko eta segurtasuneko portaerak izatea ohiko egoeretan.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:
Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.
1. Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Jarduera istorio batetik abiatuko da eta antzezpen labur batzuk proposatzen ditu saioaren lanketarako. Horren bitartez automobiletik jaistean izan daitezkeen arriskuak eta jokaera seguruak identifikatuko dituzte.

HELBURUAK:

- Bideko arrisku-egoerak hautematea.
- Mugikortasunezko ohiko jardueretan jokaera seguruak identifikatzea.
- Itxarotea kalean beharrezkoa eta positiboa dela konturatzea.
- Oinez mugitzeko heldu baten eskutik joan beharra dagoela konturatzea.

METODOAK:

"Geltokira goaz" istorioaren irakurketa. Antzezpena. Taldeko iruzkinak.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- *"Geltokira goaz"* istorioa,
- Gidariarentzat aulkia.
- Kotxeko segurtasun aulkitxo bi.
- Klariona, arkatzak, koloretako errotuladoreak.
- Paperezko orriak.

JARDUERAREN GARAPENA:

Irakasleak lurrean automobila irudikatuko duen espazio bat marraztuko du. Aurrean bi aulki jarriko ditu, gidaria eta kopilotuarenak, eta beste bi aulki atzean jarriko ditu.

Atzeko eserlekuetan kotxeko segurtasun aulki bi egongo dira (benetakoak edo sinbolikoak).

Familiaren bati eskatu ahal zaio saio hau egiteko segurtasun aulkitxoa, edo bestela objektu lau bat erabili gainean esertzeko (kuxin bat adibidez) eta zinta zabal bat segurtasun uhala irudikatzeko.

Kotxearen albo baten irakasleak espaloia marraztuko du eta beste aldean kotxeak dabiltzan kale baten galtzada.

Ondoren taldeari "Geltokira goaz" istorio laburra irakurriko dio.



GELTOKIRA GOAZ

Malen, Xabier eta Julia hiru neba-arreba dira, eta oso pozik daude, aitona Joseba dator eta.

Aitona trenean dator. Malen eta Xabier amarekin doaz kotxean tren geltokira aitonaren bila.

Julia aitarekin geratu da etxean, aitona Josebari ongi etorria emateko pastel bat prestatzen.

Geltokira heldu dira kotxean eta amak kotxea espaloiaren ondoan aparkatu du, geltokiaren sarreraren parean.

Malen eta Xabier aitona Joseba ikusteko irrikitan daude.

Irakasleak boluntario bat eskatuko du Xabier antzezteko eta beste boluntario bat Malen izateko.

Irakasleak ama antzeztuko du.

Pertsona bakoitzak kotxean bere lekua hartuko du.

Irakasleak egoera azalduko du:

Geltokiaren parean aparkatu berri dute. Oso pozik dauke, emozionaturik, eta hortxe dago aitona Joseba, geltokiaren atean.

Besarkatzeko irrikitan daude!



Irakasleak bi jokaera antzeztuko dituztela azalduko du, jokaera bat arriskutsua izango da, bestea segurua.

LEHEN ANTZEZPENA

Aitona ikusteko irrikitan gaude! Eta geltokiko atean dugu guri itxaroten! Maleta bat eta poltsa bat dakartza! Seguru opariak daudela poltsa horretan!

Malen eta Xabierrek segurtasun uhala kentzen dute eta azkar irteten dira kotxetik, bat espaloiaren aldetik eta bestea galtzadatik.

Aitona besarkatzeko gogo itzela dute!

BIGARREN ANTZEZPENA

Aitona ikusteko irrikitan gaude! Eta geltokiko atean dugu guri itxaroten! Maleta bat eta poltsa bat dakartza! Seguru opariak daudela poltsa horretan!

Malen eta Xabier eserita gelditukо dira amak beraien segurtasun aulkitxoaren uhala askatu arte. Irakasleak amak egiten duena antzeztuz batera azalpenak emango ditu. Amak espaloiaren aldeko atea zabalduko du eta hau ere azalduko die haurrei. Galtzadaren aldeko atetik ateratzea oso arriskutsua dela esango du, ibilgailuak etengabe ari direlako pasatzen. Lehenbizi galtzadaren aldean dagoenaren uhala askatuko du, gero espaloiaren aldean dagoenarena. Azkenik ordenean irtengo dira kotxetik eta amaren eskutik helduta gelditukо dira espaloian.

Aitona besarkatzeko gogo itzela dute!

Irakasleak galdetuko du:

- Zein da kotxetik jaisteko modu segurua?
- Zergatik?
- Zergatik ez da segurua kotxetik jaisteko beste modua?
- Zer arrisku dago?

Irakasleak lehen antzezpena egin duten umeei jesartzeko eskatuko die eta bigarren antzezpena egiteko beste hiru boluntario eskatuko ditu.

ESPALOIAN

LEHEN ANTZEZPENA

Hor dago aitona! Ez gaitu ikusten!

Bakarrik irteten dira korrika semafororarte eta amari azkar etortzeko oihukatzen diote. Espaloiertzean gelditzen dira eta aitona Josebari keinuak egiten dizkiote beraiek ikusteko.

Aitonaaaaa!

BIGARREN ANTZEZPENA

Hor dago aitona! Ez gaitu ikusten!

Amaren eskutik helduta espaloitik ibiliko dira semafororarte eta semaforoa berdean jarri arte itxarongo dute. Joseba aitonari keinuak egiten dizkiote eta muxuak bidaltzen dizkiote beraiek ikusteko.

Aitonaaaaa!

Irakasleak lehen antzezpenaren ostean egindako antzerako galderak egingo ditu, hausnarketa eragiteko.

Ondoren, irakasleak ekintza seguruen laburpena egingo du.

- Pertsona heldu batek segurtasun aulkitxoen uhalak askatu arte itxaron.
- Kotxetik lasaitasunez irten, espaloiaren aldetik soilik jaitsi eta inoiz ere ez errepidearen aldetik.
- Pertsona helduaren ondoan itxaron automobila itxi arte.
- Pertsona helduaren eskutik helduta oinez ibili espaloitik.
- Semaforoa berde jarri arte itxaron, espaloiertzetik urrun.

Irakasleak haurrei Joseba aitona etorri dela ospatzeko pastel baten marrazkia egiteko eskatuko die. Horretarako papera, arkatzak eta koloretako errotuladoreak banatuko dizkie.

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

- Arriskuak eragiten dituzten eguneroko jarduerak badaudela, eta egoera horietan jokaera seguruak zeintzuk diren.
- Garrantzitsua dela itxarotea, eta kalean zehar oinez dabiltzanean pertsona heldu baten eskutik helduta joatea.





5. JARDUERA ADI! MIN HAR DEZAKET?

Iraupena gutxi gorabehera:

Ordubete.

Curriculumeko eremua:

Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

HELBURUAK curriculares:

- Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatze-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.
- Gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea eguneroko bizitzako egoeretan, eta hartu-eman horietako arauak ikastea, komunikatu nahi dena interpretatzeko.

Curriculumeko edukiak:

Eduki komunak.

- Ideiak sortu eta adieraztea.

1. Multzoa: Hitzezko eta idatzizko komunikazioa.

- Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab.

4. multzoa: Arte-komunikazioko beste modu batzuk.

- Arte-adierazpenak baliatuz adieraztea eta komunikatzea gertakariak, sentimenduak, emozioak, bizipenak eta ametsak.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.

1. Maila *(Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketela).*

Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

1. Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Haurrek espazio seguruak eskaintzen dituztenak identifikatuko dituzte, eta arrisku egoerekin alderatuko dituzte. Horretarako, irakasleak ipuin labur bat erabiliko du, taldearen ekarpenekin osotuko den ipuina, ipuinari umeek aipatutako hainbat egoera, emozio eta jokaera txertatuz.

HELBURUAK:

- Arriskua eragin dezaketen espazio eta elementuak hautematea.
- Ingurune seguruak eta ez-seguruak identifikatzea.
- Jokaera seguru eta jokaera arriskutsuetaz jabetzea.

METODOAK:

Elkarrizketa gidatua. Ipuin labur bat sortzea. Taldeko eztabaida.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Marrazkiak: espazio seguruak eta ez-seguruak.



JARDUERAREN GARAPENA:

Jarduera hiru fasetan garatuko da.

Irakasleak jarduera azalduko du: denen artean ipuin bat sortuko dugu.

1. FASEA

Ipuina sortzeko, haurrei espazio **eroso eta seguru** bat irudikatzen duen marrazki bat erakutsiko die, egongela bat jostailuekin. Leku ezaguna da, ezin daiteke ezer txarrik gertatu. Espazio seguru bat da.

Irakasleak haurrei egongelaren marrazkia erakutsiko die.

Asma dezagun ipuin bat marrazki honekin!

Peioren etxea da.

Zer dago egongelan?

Zer egiten du Peiok etxean dagoenean?

Nor gehiago bizi da etxean?

Hemen arriskuren bat dago?

Nola sentitzen da Peio leku honetan?





Irakasleak ipuina osotzen lagunduko du. Ipuinak adibide honen antzerako edukiak izan ditzake:

Peio bere etxeko egongelan ari da jolasten. Bere aita sukaldean dago, askaria prestatzen. Asko gustatzen zaio bere etxea eta bertan seguru eta zoriontsu sentitzen da...

2. FASEA

Irakasleak beste espazio bat erakutsiko die umeei. Oraingoan espazio **ezezaguna** izango da, nork daki zer gerta daitekeen bertan. Baso baten marrazkia da, ez dago inor ez ezer bertan, soilik zuhaitzak eta landareak ikusten dira. Espazio honetan pertsonak ez dira seguru ezta babestuak sentitzen.

Irakasleak haurrei basoaren marrazkia erakutsiko die.

Beste ipuin bat asma dezagun:

Zer gertatzen zaio Peiori?

Zer dago leku honetan?

Non daude pertsonak?

Etxerik ikusten da?

Nola sentitzen da Peio leku honetan?

Irakasleak bigarren ipuin hau osotzen lagunduko du. Ipuina horrelakoa izan daiteke:

Peioren etxea basotik hurbil dago. Peio bere amonarekin irten da pasealdi bat emateko. Jolasean ari dela, distraitu eta galdu egin da. Asko ikaratu da, ez du etxerik ikusten ezta bidearen bukaera ere ez. Ez daki etxera itzultzen. Negarrez hasi da eta bere amonari deitu dio. Amonak negar baten aurkitu du Peio, lasaitu egin du eta biak kantuan eta pozik itzuli dira etxera.

3. FASEA

Irakasleak **espazio segurua** eta **ez-seguruaren** arteko konparaketa egiteko bi marrazki erakutsiko ditu. Espazio segurua hesitutako jolas-parke baten marrazkia izango da, eta espazio ez-segurua trafiko asko duen kale baten marrazkia.

Aurreko faseetan landutakoaren harira egin daitezkeen galdera batzuk proposatzen ditugu, adibide moduan:

Zer gertatzen da parkean zaudenean?

Beldurrik sentitzen duzu?

Peio bere etxean sentitzen den bezala sentitzen zara?

Eta zer gertatzen da kaletik zoazenean?

Parkean zaudenean bezala sentitzen zara kalean zehar?

Norekin joaten zara kaletik?

Ondo sentitzeko heldu baten eskutik joateko beharra duzu?

Jarduera bukatzeko, irakasleak landutako elementu nagusiak laburbilduko ditu.

- Seguruak diren espazioak daude (etxea, eskola, liburutegia, jostailu-denda, etab.).
- Seguruak ez diren espazioak daude (kalea, basoa, hondartza, igerilekua, etab.).
- Seguruak ez diren espazioetan:
  – Arreta handia jarri behar da.
  – Ahal bada pertsona heldu baten eskutik joan beharra dago.
  – Ez dugu korrika egin behar.





JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

Arreta jokaera garatzen, espazio seguruak eta ez-seguruak bereizten lagunduko diena, eta autobabes-jokaerak garatzeko zein funtsezko elementutan jarri behar duten arreta identifikatzen.

5. JARDUERA

ADI! MIN HAR DEZAKET?

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

4-5 urte

1. ERANSKINA

ESPAZIOEN MARRAZKIAK

5. JARDUERA

ADI! MIN HAR DEZAKET?

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

4-5 urte ●●○

1 ERANSKINA. ESPAZIOEN MARRAZKIAK

5. JARDUERA

ADI! MIN HAR DEZAKET?

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

4-5 urte

1 ERANSKINA. ESPAZIOEN MARRAZKIAK



5. JARDUERA

ADI! MIN HAR DEZAKET?

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

4-5 urte

1 ERANSKINA. ESPAZIOEN MARRAZKIAK



5. JARDUERA

ADI! MIN HAR DEZAKET?

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

4-5 urte

6. JARDUERA SEGURUA DA ALA EZ?

Iraupena gutxi gorabehera:

Ordu erdi.

Curriculumeko eremua:

Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

Curriculumeko helburua:

Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilita, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.

Curriculumeko edukiak:

1. Multzoa: Hitzezko eta idatzizko komunikazioa.

- Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab.

3. Multzoa: Matematika-hizkuntza.

- Objektuen eta materialen ezaugarri batzuk (kolorea, forma, horien egitekoa, etab.) ezagutzea eta bereiztea. Objektuen arteko antzekotasunak eta diferentziak hautematea.
- Multzoak zenbakitu gabe kuantifikatzea (asko, gutxi, etab.).
- Berdintasun eta desberdintasuneko loturak egitea (berdinak dira, gehiago dira, gutxiago dira…).

4. Multzoa: Arte-komunikazioko beste modu batzuk.

- Arte-adierazpenak baliatuz adieraztea eta komunikatzea gertakariak, sentimenduak, emozioak, bizipenak eta ametsak.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:

Arreta .

1. Maila *(Sentikorra da oinarrizko zentzumenen bidez jasotako informazioekiko).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Jarduera honetan haurrek kalean, autoan edo parkean eman daitezkeen jokaera seguru eta ez-seguruak identifikatu eta sailkatuko dituzte, irudi batzuetatik abiatuta.

HELBURUAK:

- Arriskutsuak izan daitezkeen espazio eta elementuak hautematea

METODOAK:

Irudien sailkapena.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Bi kaxa.
- *1. eranskinean* dauden irudiak.



JARDUERAREN GARAPENA:

Haurrak zirkuluan eseriko dira. Lurrean borobil bat marraztuko da eta borobil honen barruan irudien kartak jarriko dira.



1. FASEA

Haur bakoitza zutundu, bi karta hartu eta eseri egingo da. Kartetako irudiak begiratuko ditu eta sailkatu egin beharko ditu, honela:

Kartako irudiak elementu edo egoera segurua adierazten badu, aurpegi irribarretsua duen kaxan jarriko du.

Kartako irudiak elementu edo egoera ez-segurua adierazten badu, haserre-aurpegia duen kaxan jarriko du.

2. FASEA

Irakasleak kaxa bakoitzean jarri dituzten kartak errepasatuko ditu, eta taldeak esango du ea ondo sailkatuta dauden eta zergatik. Beharrezkoa bada, kaxaz aldatuko dira gaizki sailkatutako kartak.

Jarduera irudi guztiak kaxa zuzenean sailkatuta daudenean bukatuko da. Irakasleak taldean landutakoa laburbilduko du jokaera seguruak azpimarratuz.

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek jokaera seguruak hauek direla ikasiko dute:

- Autoan:
  - Aulkitxoa erabiltzea eta ondo lotuta joatea.
- Kalean:
  - Espaloi barrutik ibiltzea, ertzetik urrun.
  - Heldu baten eskutik gurutzatzea kalea, beti.
  - Oinezkoen semaforoa berde dagoenean gurutzatzea.
  - Oinezkoen semaforoa berde egon arren ibilgailuak gelditu arte itxarotea.
  - Nahiz eta zebra-bidetik gurutzatu, ibilgailuak gelditu arte itxarotea.
  - Korrika egin gabe ibiltzea.
  - Arreta jarri eta ez distraitzea.
- Parkean:
  - Babestutako leku baten barruan jolastea.
  - Bizikletan edo patinetearekin kaskoa janztea.

1. ERANSKINA

IRUDIEN KARTAK

Eranskin honetan proposatzen ditugun kartak jarduerarako moztu eta plastifikatuko dira.

Karta bakoitzeko bi ale beharko dira.

Parke edo berdeguneetan









6. JARDUERA

SEGURUA DA ALA EZ?

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

4-5 urte

1. ERANSKINA. IRUDIEN KARTAK

Kalean





6. JARDUERA

SEGURUA DA ALA EZ?

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

4-5 urte

1. ERANSKINA. IRUDIEN KARTAK

Kalean









AURKIBIDEA

1. ERANSKINA. IRUDIEN KARTAK

Autoan



1. ERANSKINA. IRUDIEN KARTAK

Kaxetarako irudiak





5-6 URTE

7. JARDUERA KALEAN

Iraupena gutxi gorabehera:
Ordubete.

Curriculumeko eremua:
Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.

Curriculumeko helburua: Ekimenak abiatzea eta norberaren ekintzak planifikatzea eta sekuentziatzea, egiteko errazak edo arazo-egoerak ebazteko eta nork bere buruaren gaineko konfiantza-sentimendua handitzeko; frustrazio txikiak onartzea, sortzen zaizkion zailtasunak gaintzeko jarrera adieraztea eta gainerako pertsonengandik behar den laguntza bilatzea.

Curriculumeko edukiak:
1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea.
- Jolas sinbolikoaren bidez, egoera errealak edo irudizkoak eta pertsonaiak antzeztea.
- Jolas-arauak ulertzea eta onartzea. Jolasaren premia balioestea eta hura erregulatzen parte hartzea.
- Antolatzeko, konstantea izateko, arreta jartzeko, ekimena hartzeko eta ahalegintzeko ohiturak eta jarrerak lantzen hastea.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:
Ingurunearen azterketa.
1. Maila *(Hurbileko inguruneak ematen dizkion informazioak biltzen ditu eta egoera horri lotutako portaera segurua hautatzen du).*
Egokitzapena eta malgutasuna.
1. Maila *(Bide-ingurunea dinamikoa eta aldakorra dela konturatzen da, eta oinarrizko ohitura seguruak hartzen ditu).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Jarduera honetan haurrek kalean ematen diren segurtasun eta arrisku sentsazioak identifikatuko dituzte.

Simulazioaren bitartez haurrek kalea gurutzatzearen bizipena izango dute eta egoera ezberdinetan bidea gurutzatzeko izan ditzakegun baliabideak barneratuko dituzte:

- Oinezkoen pasabidea.
- Oinezkoen semaforoa.
- Trafikoko agentea.



HELBURUAK:

- Sentsazio fisiko eta emozionalekin konektatzea.
- Segurtasun eta arrisku-sentsazioak bereiztea.
- Kaleko egoerak behatu eta egoera bakoitzean nola jokatu barneratzea.
- Jokabide seguruei buruz hausnarketa egitea.

METODOAK:

Elkarrizketa gidatua. Jolasa. Simulazioa.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Klariona edo zinta itsaskorra, lurra markatzeko.
- Txilibitua, klaxona edo hasiera, aldaketa eta bukaera adierazteko balioko duen edozein tresna.
- Irudiak: Bi oinezkoen semaforo berdean eta bi gorrian.
- Zinta zuria, oinezkoen pasabidea eta semaforodun bidegurutzea adierazteko lerroak marrazteko.
- Ibilgailuen dortsalak: kotxea, motorra eta bizikleta.
- Trafikoko agenteareentzat txaleko islatzailea.

JARDUERAREN GARAPENA:

Jarduera hiru momentu edo fasetan garatuko da:

1. FASEA: ELKARRIZKETA GIDATUA

Zirkuluan eserita, irakasleak hainbat galdera egingo ditu, haurrek erantzuteko:

- Nola joaten dira etxetik eskolara?
- Ibilbide horretan badago seguru sentitzen ez diren momenturen bat?
- Norbaitek laguntzen die ibilbide hori egiten?
- Nork laguntzen die?

Galderek umeak kalean zehar nola mugitzen diren irudikatzeko balioko digute.

Elkarrizketak 10 minutuko iraupena izango du. Elkarrizketa bukatzean zutundu eta jolas bat egingo dutela esango du irakasleak.



2. FASEA: JOLASA

- Irakasleak jolasaren helburua azalduko du: leku seguru batetik beste leku seguru batera joan beharko dira arriskuak kontuan hartuz.
- Jolasa egiteko dugun espazioko izkina bakoitzean irakasleak **espazio seguruak** marraztuko ditu: etxea, eskola, supermerkatua eta parkea. Beste espazio guztia kalea izango da.
- Etxearen eta parkearen artean irakasleak oinezkoen pasabide bat marraztuko du. Berdin egingo du supermerkatua eta eskola lotzeko. Parkea eta eskolaren artean bi kartel jarriko ditu, oinezkoen semaforoa berdean irudikatuko dituztenak. Supermerkatua eta etxearen artean oinezkoen semaforoak gorrian izango dira (begiratu 1.eranskinean marrazkia). Beraz, ibilbide seguruak izango dira: etxea eta parkearen artean, parkea eta eskolaren arteko ibilbidea, eta eskola eta supermerkatua lotzen dituena. Eta, seguruak ez diren ibilbideak ere izango dira: diagonalean gurutzatzean, supermerkatua eta etxearen arteko ibilbidea eta arautu gabe dagoen kaleko espazio guztia.
- Jolasa hasi aurretik irakasleak hiru3 boluntario eskatuko ditu ibilgailuen rola hartuko dituztenak: kotxea, motorra eta bizikleta. Ibilgailuaren marrazkia duten dortsalak jantziko dituzte ume hauek.
- Beste haurrei espazio seguruetan banatu daitezela eskatuko die.
- Irakasleak azalduko du klaxona edo txilibitua jotzean jokoa hasiko dela, baina doinu hori berriz ere entzuten dutenean dauden lekuan geldi-geldi geratu beharko direla, estatuak bezala. Berriz ere mugitzeko beste behin entzun beharko dute klaxon edo txilibitua eta leku batetik bestera igarotzen hasi daitezke.
- Ibilgailuak kaleari dagozkion lekuetatik ibiliko dira, ordenik gabe. Gune arriskutsuetan dabiltzan haurrak harrapa ditzakete. Aldiz, oinezkoen pasabidean, berde dagoen oinezkoen semaforoan edo marra zurien gainean dauden umeei ukitu gabe igarotzen utzi beharko diete.
- Harrapatutako haurrak ibilgailu rola hartuko dute. Dortsal bat jantzi eta zirkulatzen hasiko dira.
- Minutu gutxi batzuk pasata, irakasleak haurrekin jokaerak komentatuko ditu.

- Zuetariko nork uste du arriskuan dagoela?
- Zergatik?
- Nork uste du dagoen tokian seguru dagoela?
- Zergatik?



- Jolasa ume guztiak harrapatuak direnean bukatuko da, edo jolasteaz nekatzean.
- Irakasleak taldeari eskatuko dio zirkuluan esertzeko.
- Elkarrizketa bat hasiko du irakasleak. Galdera hauek egin ditzake:

– Zer gertatu da?
– Zer arrisku zegoen etxetik, eskolatik, parketik edo supermerkatutik irtetzean?
– Zer bide aukeratu duzue?
– Zergatik aukeratu duzue bide hori eta ez beste bat?
– Zer arrisku dago kalean?
– Zer egin beharko genuke espazio seguru batetik bestera ibilgailuek harrapatu gabe igarotzeko?
– Zer seinale aurkitzen ditugu?

3. FASEA: SIMULAZIOA

Irakasleak espaloi batetik bestera gurutzatzea kontuz egin beharreko ekintza dela azalduko du eta bidea modu seguruan gurutzatzeko hainbat era probatuko dituztela.

Lehen simulazioa oinezkoen pasabidea erabilita kalea zeharkatzea izango da:

Irakasleak haurrei ezkerrera, eskuinera eta berriz ere ezkerrera begiratu behar dela erakutsiko die, ibilgailurik ez datorrela ziurtatzeko edo ibilgailuak gelditu direla ziurtatzeko.

Umeek banan-banan gurutzatuko dute bidea. Hiru boluntarioak, dortsalak jantzita, ibilgailuak izango dira simulazioan.

Bigarren simulazioan, ibilgailuez gain oinezkoen semaforo bat izango da:

Haur batek oinezkoen semaforoa simulatuko du, aldizka kolore gorria eta berdea tartekatuz.

Irakasleak erakutsiko du semaforoa berde jarri arte itxaron beharra dagoela, lasaitasun osoz. Berde jartzen denean, gurutzatu aurretik, beharrezkoa da ezkerrera, eskuinera eta berriz ere ezkerrera begiratzea, ibilgailuak gelditu direla ziurtatzeko. Azkenik, beste aldera igaro gaitezke, presaka baina korrika egin gabe. Dortsalak jantzita dituzten umeek ibilgailuen arauak jarraitu eta oinezkoen semaforoa berdean dagoenean gelditu egin beharko dira.

Hirugarren simulazioan trafikoko agente baten laguntza izango dugu.

Lehenengo simulazioan haurrek ikusi ahal izango dute gurutzatu nahi duen jende-ilara bat badago ibilgailuak denbora luzez geldi egon beharko direla. Horregatik, trafiko asko dagoen egoeretan beharrezkoa izaten da trafikoko agente batek trafikoa arautzea.

Simulazio hasteko, irakasleak trafikoko agenteek egin ohi dituzten keinuak irakatsiko ditu. Pertsona honek ez du hitz egiten, ibilgailu eta oinezkoei zer egin esateko keinuak erabiltzen ditu bakarrik.

Keinuak ikasitakoan, irakasleak trafikoko agente rola hartuko du eta galtzadaren erdian jarriko da. Haurrak galtzada gurutzatuko dute ilaran irakaslearen keinuei kasu eginez.



JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

- Kalean gurutzatzeko elementu hauen laguntza izan dezakegu:
  - – Oinezkoen semaforo baten laguntza.
  - – Oinezkoen pasabide baten laguntza.
  - – Trafikoko agente baten laguntza.
- Oinezkoen semaforoaren laguntzarekin gurutzatzen badugul:
  - – Berdean jarri arte itxaron behar da.
  - – Oinezkoen semaforo bidez gurutzatzeak espaloi batetik bestera dauden marra zuriak jarraitzen baditugu funtzionatzen du.
  - – Ezkerrera, eskuinera eta berriz ere ezkerrera begiratu behar da, ibilgailuak gelditu direla ziurtatzeko.
- Oinezkoen pasabidetik zeharkatzeko:
  - – Espaloian itxaron behar da.
  - – Ezkerrera, eskuinera eta berriz ere ezkerrera begiratu behar da, ibilgailuak gelditzen direla ziurtatzeko.
- Trafikoko agente baten laguntzarekin gurutzatzeko:
  - – Erabiltzen dituen keinuak ezagutu behar dira.
  - – Berak gurutzatu dezakegula adierazi arte itxaron behar da.

1. ERANSKINA

JOLASERAKO BEHARREZKOAK DIREN MARRAZKIAK

1. Jolasa egiteko espazioaren eskema



2. Ibilgailuen dortsalak









7. JARDUERA

KALEAN

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

5-6 urte ooo

1 ERANSKINA. JOLASERAKO BEHARREZKOAK DIREN MARRAZKIAK

3. Trafikoko agenteen keinuak.



3. JARDUERA AUTOBUSEAN!

Iraupena gutxi gorabehera:

Ordubete.

Curriculumeko eremua:

Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezaguera.

Curriculumeko helburua:

Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatze-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.

Curriculumeko edukiak:

Eduki komunak:

- Gorputza eta emozioak autoerregulatzea.

1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea.

- Norberaren ezaugarriak, ahalmenak eta mugak balioetsi eta, arian-arian, onartzea.
- Eguneroko bizitzako jarduerak (jatorduak, atsedenak, garbitasuna eta joan-etorriak) antolatzeko ezarrita dauden arauak onartzea eta balioestea.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:

Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

1. Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Jarduera honen bidez haurrak beraien emozio eta pertzepzioekin harremanetan jarriko dira, mugikortasunari lotutako eguneroko bizipenetatik abiatuta.
Autobusean bidaiatzeko jarrera seguru eta arriskutsuak bereiziko dituzte, koloreekin eta autobusean jartzeko modu ezberdinekin jolastuz.

HELBURUAK:

- Arrisku egoeran izatearen sentsazioa sentitzea.
- Egunerokotasunean kalteak ekiditeko prebentzio-jarrerak barneratzea.

METODOAK:

Marraztea, koloratzea, kokapen desberdinekin jolastea.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Klariona, lurrean autobusaren elementuak markatzeko (gidariaren lekua, ateak, etab.).
- Aurpegi alaiaren marrazkia eta aurpegi tristearen marrazkia kartulinatan.
- Umeak autobusean kokapen ezberdinetan agertuko diren kartulinak: eserita, zutik, eserlekuaren atzean izkutatuta, eserleku gainean zutik, eserita eta segurtasun uhala lotuta, etab.
- Paperezko orriak.
- Arkatzak edo koloretako errotuladoreak.



JARDUERAREN GARAPENA:

Jarduerak hiru fase eta ondorioetan banatzen da.

LEHEN FASEA: JOLAS LIBREAREN BEHAKETA

- Irakasleak ikasgelako aulkiak autobuseko eserlekuak irudikatzeko moduan jarriko ditu. Lurrean ate bat marraztuko du gidariarentzat txokoa eta aulki bat gidariaren eserlekua dela esango du.
- Haurrei esango die txango batera joan behar direla. Umeak ikasgelatik kanpo eramango ditu eta ilaran jarriko ditu. Irudikatutako autobuseko aterarte gidatuko ditu haurrak. Ibilaldia egiteko autobus berezi honetan bidaiatuko dutela esango die eta bakoitzak nahi duen eserlekua aukeratu dezakeela.
- Haurrek autobusera igo eta beraien lekua hartzera jolastuko dute, eta bitartean irakaslea egiten dutena behatzen izango da.
- Azkenik helmugara heldu direla esango du irakasleak eta autobusetik jaisteko garaia dela. Autobusetik nola jaitsi diren behatuko du irakasleak, eta haurrei zirkuluan esertzeko esango die, alfonbra gainean edo aulkitxoetan esertzeko.



BIGARREN FASEA: AUTOBUSEAN JOKAERA SEGURUEI BURUZKO ELKARRIZKETA GIDATUA.

- Irakasleak bi irudi jarriko ditu horman: Batek aurpegi triste eta gorria adierazten du eta besteak aurpegi alai eta berdea *(Irudiak 1. eranskinean daude eskuragai).*



- Ondoren, haur bakoitzari kartulina bat banatuko die (*1. eranskinean luzatzen da materiala*). Kartulina bakoitzak irudi bat du, autobusean izan daitezkeen kokapen eta jarrera ezberdinekin.
- Jarraian, ume bakoitzari eskatuko dio zer irudi duen eskutan, eta bidaiatzeko modu hori egokia den edo arriskutsua den, eta zergatik. Kartulinako jarrera edo egoera segurua bada aurpegi berdearen azpian, eta arriskutsua bada aurpegi gorriaren azpian jartzeko eskatuko die. Adibidez:



2. eranskinean jokaera seguruak eta arriskutsuak deskribatzen dira.

- Haurrek irudiak aurpegien azpian kokatuko dituzte. Irakasleak irudia zergatik kokatzen duten leku horretan galdetuko du, eta irudian agertzen den egoera gauzatuz gero zer gertatu daitekeen galdetuko du.

HIRUGARREN FASEA: SIMULAZIOA ERREPIKATZEA

- Irakasleak hasieran egindako simulazioa berriz ere egitea eskatuko du, eta behaketa bat egingo du. Oraingoan haurrak modu seguruan egiten badute, jolasean ikasitakoagatik zorionduko ditu. Norbaitek oraindik modu arriskutsuan egiten badu, ume batzuk oraindik arriskuan jarraitzen dutela aipatuko du, baina seguru laster hobeto egingo dutela.

ONDORIOA: ZER IKASI DUGU GAUR

- Irakasleak, jarduera bukatzeko saioan ikasitakoa marrazteko eskatuko die haurrei. Horretarako orriak banatuko ditu, eta autobusean bidaiatzeko jarrera egokia marrazteko eskatuko die.
- Ume bakoitzak bere marrazkia horman autobus huts bat irudikatzen duen panel baten itsatsi dezake (3. eranskina).
- Orain bai, orain bai seguru bidaiatuko dugula!

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

- Autobusean eserita eta segurtasun uhala lotuta bidaiatzea segurua da.
- Gorputza beste edozein jarreratan badugu, istripua izanez gero min hartu dezakegu.
- Ibilbidean zehar ez da altxatu ezta jolastu behar.
- Autobusera igotzea eta bertatik jaistea presarik gabe eta ordenan izan behar da.
- Haur batek zerbait behar badu, eskua altxa dezake, laguntzaileari deitzeko, baina ez da eserlekutik altxatu behar.
- Gure lagunei zerbait esan nahi badiegu, helmugara heldu eta autobusetik jaitsi arte itxaron dezakegu.





1. ERANSKINA

KARTAK IRUDIEKIN

Eranskin honetan proposatzen ditugun kartak moztu, plastifikatu eta proposatutako jardueran erabiltzeko dira.









8. JARDUERA

AUTOBUSEAN!

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

5-6 urte ○○○

1 ERANSKINA. KARTAK IRUDIEKIN





8. JARDUERA

AUTOBUSEAN!

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

5-6 urte ooo

1 ERANSKINA. KARTAK IRUDIEKIN







2. ERANSKINA

AUTOBUSEAN JOKAERA SEGURU ETA ARRISKUTSUAK.

AUTOBUSEAN JOKAERA SEGURUAK	AUTOBUSEAN JOKAERA ARRISKUTSUAK
Eserita egotea, segurtasun uhala jarrita.	Helmugara heldu aurretik segurtasun uhala askatzea. Segurtasun uhala jarri gabe bidaiatzea.
Zerbait eskatu nahi bada eskua altxatzea.	Laguntzaileari zerbait galdetzeko zutundu eta beragana joan, autobusa martxan dela.
Banakako ilaran igo eta jaitsi autobusetik.	Binaka edo hirunaka igo eta jaistea.
Presarik ez izan	Autobusera igo edo bertatik jaisterakoan bultzaka aritzea.
Laguntzaileak jaitsi ahal dela esan arte eserita itxaron.	Autobusa guztiz gelditu orduko altxatzen hastea.
Espaloian lasai itxaron autobusera igo arte.	Autobusari itxaroten ari garenean jolasean ibiltzea.
Eserlekua esertzeko bakarrik erabili.	Eserlekuaren atzean izkutatzea. Eserlekuaren gainean zutik izatea.
Altxatu gabe elkarrizketan aritu.	Autobus barruko korridorean jolastea.

8. JARDUERA
AUTOBUSEAN!

HONETAN ERE... SEGURU
Haur Hezkuntzako jarduerak
5-6 urte ○○○

3. ERANSKINA

JOLASAREN AZKEN PANELA



Panelak hutsik dagoen autobus bat irudikatzen du, jardueraren bukaeran ume bakoitzak bere marrazkia itsatsi dezan.
Marrazkiak ume bat autobusean modu zuzenean eserita irudikatuko du.



8. JARDUERA

AUTOBUSEAN!

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

5-6 urte ○○○

9. JARDUERA SUGEEN HONDARTZA

Iraupena gutxi gorabehera:
Ordubete.

Curriculumeko eremua:
Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.

Curriculumeko helburua:
Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatze-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.

Curriculumeko edukiak:
1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea
- Gorputzak oinarrizko zer beharrizan dituen jakitea eta haiek adieraztea, erregulatzea eta kontrolatzea. Konfiantza izatea norberak beharrizan horiek asetzeko duen ahalmenean.

3. Multzoa. Hartu-emanak ingurune fisiko eta naturalarekin .
- Naturaren eta izaki bizidunen gaineko jakin-mina, interesa eta errespetua izatea. Jarrera kritikoa izatea ingurunean egiten diren jarduera kaltegarriekiko.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:
Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.
1 Maila *(Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketela).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Jarduera honek bide-arriskuak dauden egoeretan jarriko ditu ikasleak, eta simulazio baten bidez egoera horietan sentitzen diren emozioak ezagutzea du helburu. Aldi berean egoera horietan eman beharreko erantzun-estrategiak landuko dira.

HELBURUAK:

- Kalean ematen diren arrisku-jokaerak identifikatzea.
- Mugikortasunerako prebentziozko estrategiak praktikatzea.
- Jokaera seguruak gogoratzea.

METODOAK:

Jolasa. Elkarrizketa taldean.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Lurzorua marrazteko klarionak.
- Paper berdez egindako petoak.
- Soinketako uztaiak.



JARDUERAREN GARAPENA:

JARDUERAREN LEHEN FASEA: JOLASA PRESTATZEA

Jolasa jolastokian garatuko da.

Irakasleak jolasteko lekua marraztuko du lurzoruan (ikus *1. eranskina*) eta jolasa azalduko die haurrei:

Txango bat egitera joan gara. Bero egiten du eta txangotik bueltan gatozela aintzira eder bat aurkitu dugu, ur fresko-freskoarekin.

Zer poztasuna! Bainu freskagarri bat hartu, fruta jan eta bideari ekin ahal diogu berriro!

Baina, a zer beldurra! Aintzirara heltzeko sugez betetako hondartza bat zeharkatu beharra dugu. Hondartza gurutzatzeko modu bakarra harritik harrira korrika joatea da, sugeek ez dakite eta harri gainera igotzen.



JARDUERAREN BIGARREN FASEA: JOLASTERA

Haurren erdia sugeak izango dira eta beste erdia hondartza zeharkatzen saiatuko da, sugeek kosk egin gabe.

Jolasteko arauak oso sinpleak dira:

- Basotik aintzirara joan beharra dago. Horretarako sugeen hondartzatik igaro behar da, sugeek kosk egin gabe pasatuz.
- Sugeek kosk ez egiteko, harritik harrira pasatu beharko da hondartza.
- Harri bakoitzean haur bat sartzen da soilik.
- Harri batetik bestera joatean suge batek ukitzen bazaitu, kosk egin dizu sugeak, eta suge bilakatzen zara.

Jolasa errepikatuko da orain, rolak aldatuz: sugeak izan diren haurrak oraingoan hondartza zeharkatzen saiatuko dira aintzirara heltzeko.

HIRUGARREN FASEA: ELKARRIZKETA IKASGELAN

Haurrak zirkuluan eseriko dira. Irakasleak jolasean bizi izandako egoera eta kalean bizi ohi dituzten egoeren arteko alderaketa egingo du, horretarako galderak eginez:

Eta kalean, ba al dago arriskurik?
Zeintzu dira arriskuak?
– Harrapatua izatea.
– Galtzea.
– Autobusa galtzea.

Erantzunetatik abiatuta, irakasleak jokabide seguruetara gidatuko du elkarrizketa:

– Zer egin dezakegu kalean zehar oinez seguru ibiltzeko?

- **Astiro ibili, espaloitik korrika egin gabe.**
- **Espaloi barrutik** ibili edo jolastu, ertzetik urrun.
- **Kalea** gurutzatzen dugunean **adi egon**.
- Bizikleta eta patineteekin partekatutako espaloian bagabiltza **ondo begiratu ingurura.**
- **Oinezkoen pasabidea edo oinezkoen semaforoa dagoen lekutik gurutzatu soilik.**
- Nahiz eta oinezkoen pasabidetik gurutzatu, **ibilgailuak gelditu arte itxaron.**
- Bizikleta edo patinetez bagoaz **kaskoa jantzi.**

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute: ibilgailuak dabiltzan kaleetan arrisku egoerak ematen dira, eta egoera hauen aurrean jokabide seguruak izan behar ditugu, kalterik ez izateko.

Jarduerak zera gogoratzeko balio izan du:

Kaleko arriskuak:

- Azkar doazen autoak
- Espaloitik dabiltzan bizikletak eta patineteak
- Espaloi-ertzetik oso hurbil igarotzen diren autoak
- Oinez pasiatzeko guneetan patineteak, bizikletak, skateak…

Eta jokaera seguruak:

- Astiro ibiltzea, espaloitik korrika egin gabe.
- Espaloi barrutik ibiltzea edo jolastea, ertzetik urrun.
- Kalea gurutzatzen dugunean adi egotea.
- Bizikleta eta patineteekin partekatutako espaloian bagabiltza ingurura ondo begiratzea.
- Oinezkoen pasabidea edo oinezkoen semaforoa dagoen lekutik gurutzatzea soilik.
- Nahiz eta oinezkoen pasabidetik gurutzatu, ibilgailuak gelditu arte itxarotea.
- Bizikleta edo patinetez bagoaz kaskoa janztea.

1. ERANSKINA

JOLASA: SUGEEN HONDARTZA

Jolastokiko lurzoruan egin beharreko marrazkia soinketako uztaiek harriak irudikatuko dituzte.



JOLASAREN ARAUAK

- Basotik aintzirara joan beharra dago. Horretarako sugeen hondartzatik igaro behar da, sugeek kosk egin gabe pasatuz.
- Sugeek kosk ez egiteko, harritik harrira pasatu beharko da hondartza.
- Harri bakoitzean haur bat sartzen da soilik.
- Harri batetik bestera joatean suge batek ukitzen bazaitu, kosk egin dizu sugeak, eta suge bilakatzen zara.



10. JARDUERA A ZER BALAZTADA!

Iraupena gutxi gorabehera:
Ordubete.

Curriculumeko eremua:
Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.

Curriculumeko helburua:
Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.

Curriculumeko edukiak:
Eduki komunak:

- Gorputza eta emozioak autoerregulatzea.

1. Multzoa. Nortasuna eraikitzea.

- Osasunari zuzenean eragiten dioten arrisku-faktoreen balioespen doitua egitea eta prebentzioko eta segurtasuneko portaerak izatea ohiko egoeretan.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:
Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.
1 Maila *(Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Jarduerak jolas bat proposatzen du, ikasleek autoan bidaiari direnean arriskua hauteman eta emozioak bizitzeko. Hortik abiatuta ibilgailuetan bidaiari direnean izan behar dituzten jokaera seguruak barneratzea bilatzen da.

HELBURUAK:

- Arriskuaren sentsazioa nabaritzea.
- Beldurra arrisku baten abisua ematen digun seinale positibo bezala identifikatzea.
- Arriskua aurreikusteko jokaera seguruak identifikatzea.

METODOAK:

Jolasa. Taldeko elkarrizketa.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Laneko aulki bi, gurpildunak eta bizkarraldearekin.
- Bidaiari bezala jokatuko dutenak eusteko zinta zabala.

JARDUERAREN GARAPENA:

1. FASEA:

Haurrak zirkulu erdi osatuta eseriko dira, jokoan gertatuko dena ondo ikusteko.

Gelako lagun bi aulkietan eseriko dira, auto baten bidaiariak direla irudikatuz. Beste bi lagunek aulkiak bultzatuko dituzte.

Aulkietan eseritako haur bat zintarekin lotuta izango da, bestea ez.

Beste gelakideek gertatzen dena behatuko dute.

Irakasleak STOP! esaten duenean aulkiak bultzatzen ari direnak bat-batean gelditu dira.

2. FASEA:

STOP horrek, bat-batean gelditzeak, lotuta ez dagoen umea aulkitik jaurtitzea eragingo du.

Ariketa hainbat aldiz errepika daiteke, talde osoak sustoaren esperientzia izan dezan.

3. FASEA:

Zirkuluan eserita, bizitako sentsazio eta emozioei buruz hitz egingo du taldeak.

Irakasleak elkarrizketa gidatuko du eta jolasean bizitakoa benetako egoerekin lotuko du, autoan bidaiariak direnean gertatu daitezkeen egoerekin hain zuzen.

Galdera hauek erabil daitezke elkarrizketa gidatzeko:

- Zer sentitu duzue lotuta joatean?
- Zer sentitu duzue lotu gabe joatean?
- Zer gertatu da?
- Beldurrik izan duzue?
- Inoiz antzerako sentsazioa izan duzue, autoan bidaiatzean gidariak autoa bat-batean geldiarazi behar izan duenean?
- Zer gertatu daiteke ondo lotuta ez bagoaz?
- Zer egin behar dugu aulkitik aurrerantz jaurtiak ez izateko?

Elkarrizketa honen bidez haurrek arrisku-egoerak identifikatuko dituzte, eta egoera hauetan sortzen diren emozio eta sentsazioak ere bai. Era berean, arrisku-egoera hauek ekiditeko jokaera seguruak landuko dira.

Jarduera bukatzeko landutakoaren sintesi bat egingo da:

- Autoan arrisku-egoerak izan daitezke.
- Jokaera seguruak beharrezkoak dira:
  - Aulkitxoan eta segurtasun-uhala lotuta bidaiatzea.
  - Helmugara heldu eta autoa gelditu arte segurtasun-uhala lotuta izatea.
  - Segurtasun-uhala pertsona heldu batek askatu arte itxarotea.
  - Pertsona heldu batek lagundu edo autotik irten gaitezkeela esan arte itxarotea.
  - Autotik jaisteko espaloiaren aldeko atea erabiltzea.









JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

- Autoan bidaiatzen dugunean ezusteko gauzak gerta daitezke; balaztadak, biraketa bortitzak, etab.
- Ezusteko hauek gertatzen direnean minik ez hartzeko garrantzitsua da gure burua babesteko hurrengoak kontuan hartzea:
  - Aulkitxoan eserita bidaiatzea, segurtasun-uhala lotuta.
  - Heldu batek irteten lagundu arte autotik ez jaistea.

1. ERANSKINA

HAURRAK LOTZEKO SISTEMEI BURUZKO INFORMAZIOA

Haurrak lotzeko sistemei buruz informazioa nahi baduzu, lotura hau gomendatzen dugu:

Hasieratik seguru

http://trafikoa.bidehezkuntza.org/sri/e1.html

10. JARDUERA

A ZER BALAZTADA!

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

5-6 urte ooo

11. JARDUERA IGANDEA, JAIEGUNA!

Iraupena gutxi gorabehera:

Ordubete.

Curriculumeko eremua:

Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

Curriculumeko helburua:

Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilita, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.

Curriculumeko edukiak:

4. multzoa. Arte-komunikazioko beste modu batzuk.

- Arteko trebetasun eta teknika oinarrizkoak erabiltzen hastea.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:

Ingurunearen azterketa.

1 Maila *(Hurbileko inguruneak ematen dizkion informazioak biltzen ditu eta egoera horri lotutako portaera segurua hautatzen du).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Jarduera honetan haurrak igande bateko bidai bat egingo duteneko egoeran jarriko ditugu. Testuinguru honetan, haurrek ibilgailuetako bidaiari bezala izaten dituzten ohiko esperientzien gainean hausnartzeko aukera izango dute, eta bidaiari bezala izan behar dituzten jarrera eta jokaera seguruak identifikatuko dituzte.

HELBURUAK:

- Haurrek autoan doazenean zer egiten duten identifikatzea.
- Autoan bidaiatzean egoera arriskutsuak eragin ditzaketen jokaerak hautematea.
- Autoan bidaiatzean jarraitu beharreko jokaera zuzenak identifikatzea.

METODOAK:

Marrazkia. Taldeko elkarrizketa. .

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Orriak.
- Koloretako arkatzak.
- Koloretako errotuladoreak. .



JARDUERAREN GARAPENA:

1. FASEA:

Irakasleak orriak, arkatzak eta errotuladoreak banatzen dituen bitartean, jarduera azalduko du:

Gure familiarekin autoz bidai bat egin behar dugu. Igandea da eta hondartzara goaz.

Bakoitzak bere familiaren autoa marraztuko du.

Marrazkia egindakoan, taldea zirkuluan eseriko da.

2. FASEA:

Irakasleak galdetuko du:

– Autoan bidaiatzea esaten badut, zer datorkizue burura?
– Zer egiten duzue bidaian zehar?

3. FASEA:

Irakasleak seguruak ez diren jokaerak aipatuko ditu:

- Auto barruan jolastea.
- Oihu egitea.
- Gidariari gauzak eskatzea edo bere arreta eskatzea.
- Segurtasun-uhala askatzea.
- Lotuta bidaiatu nahi ez dugulako negar egitea.
- Pilota batekin jolastea edo gauzak jaurtitzea (jostailuak, ipuinak, janaria, edaria…).

Aipatutako jokaera arriskutsu bakoitzeko, taldeak zein jokaera seguru izan beharko litzatekeen aipatuko du.

Jokaera seguru esanguratsuenak hauek dira:

- Beti s**egurtasun-uhala lotuta bidaiatzea**.
- Gidariak bere zeregina ongi egin dezan **ahapeka hitz** egitea.
- Bidaideekin **borrokan ez egitea**.
- Gauzak **ez jaurtitzea**.
- **Gidatzen ari dena ez distraitzea,** gure galdera edo eskaerekin temati ibiltzeagatik.
- **Segurtasun-uhala askatu gabe eserita lasai itxarotea,** helmugara heldu eta heldu batek lagundu arte.
- Autotik irtetzeko beti **espaloiaren aldeko atea erabiltzea.**

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

- Jokaera batzuk seguruak dira eta auto barruan bidaiaz gozatzea ahalbidetuko digute, gidariari gidatzea eragotzi gabe.

Irakasleak jardueraren bukaeran ideia nagusiak aipatuko ditu:

- Beharrezkoa da bidaiari bezala lasai ibiltzea. Horretarako bidaian zehar egiteko jarduerak presta ditzakegu, gidaria es distraitzeko: ipuinak, pelikulak, marrazkiak…
- Beste haur batzuekin bidaiatzen badugu, jolasean aritu gaitezke lasai, oihu egin gabe eta gauzak jaurti gabe, besteei eta gidariari min egin diezaiekegu eta.
- Egarri bagara, hobe da eskura ur botila bat izatea, inori eskatu beharrik ez izateko.
- Autoa gelditzeko beharra badugu, denboraz abisatuko dugu, gidariak denbora izan dezan leku apropos baten gelditzeko.
- Autoa gelditu eta helduek guri lagundu arte segurtasun-uhala lotuta izan behar dugu.
- Bidaia bukatzean eta autotik irtetzean, arreta jarri behar dugu zein atetatik irtengo garen erabakitzeko. Beti irtengo gara espaloiaren ondoan dagoen atetik.



12. JARDUERA A ZER BELDURRA!

Iraupena gutxi gorabehera:

Ordubete.

Curriculumeko eremua:

Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

Curriculumeko helburua:

Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.

Curriculumeko edukiak:

Eduki komunak.

- Autorregulación de la dimensión corporal y de las emociones.

4. Multzoa. Arte-komunikazioko beste modu batzuk.

- Genero eta estilo askotako obra batzuk entzutea.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.

1 Maila *(Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketela).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Musika izango da lanketa honetarako bidea. Irakasleak musika entzutea proposatuko du eta musika entzuteaz batera, segurtasun-gabeziaren sentsazioa identifikatzeko eskatuko dio taldeari. Gidatutako elkarrizketaren bidez kalean egon daitezkeen espazio eta egoera ez-seguruak -beldurra eragiten dutenak- azaleratuko dira.

Jarduera bukatzeko, haurrek, poztasuna transmititzen duen doinu bat entzuten duten bitartean, kaleko egoera seguru bat marraztuko dute.

HELBURUAK:

- •Beldurraren emozioarekin konektatzea, kalean edo beste edozein espazio publikotan bizi izandako egoerekin lotura eginez.
- Espazio publikoetan ematen diren ekintza eta jokaera seguruek transmititzen duten sentsazio atseginaz jabetzea.



METODOAK:

Musika entzutea. Gidatutako elkarrizketa. Marrazketa. .

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Musika erreproduzitzeko aparatua.
- Bozgorailuak.
- Interneteko konexioa.
- Orriak.
- Koloretako errotuladoreak.

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

5-6 urte ○○○

JARDUERAREN GARAPENA:

Irakasleak *1.eranskinean* azaltzen diren melodia batzuk izango ditu aukeran. Beste musikaren bat ere aukera dezake, beldur sentsazioa transmititzen duen beste edozein melodia.

Taldea zirkuluan eseriko da. Oso garrantzitsua da giro egokia sortzea: argiaren intentsitatea jaitsi ikasgela ilunantzean geratzeko, isiltasuna eskatu eta lanketarako giro aproposa sortu.

1. FASEA:

Aukeratutako musika jarriko du irakasleak, eta ahotsa egoerara egokituz, egoera zehatz batzuen adibideak jarriko ditu. Adibideen artean kalean ematen diren egoerak aipatuko ditu, horrela taldeak arriskua mugikortasun egoeretan eta kaleetan irudikatu ahal izango du.

- Grrr! Auto honek ikaratu nau, oso azkar pasatu da!
- Ai ama, bizikletak ia-ia harrapatu nau!
- A zer beldurra, ez dut nire aita ikusten!

2. FASEA:

Musika entzundakoan, umeek entzunaldian izan dituzten sentsazioak azalduko dituzte.

Umeen ekarpenetatik abiatuta, irakasleak kale-egoeretara bideratuko du elkarrizketa, beldurra izan duten egoeretara. Horretarako galdera batzuk egingo ditu, adibidez:

– Beldurra sentitu duzue kalean? Noiz?
– Zer gertatu da egoera horretan?

Haurrek bizi izan dituzten beldur-egoerak aipatu eta azalduko dituzte. Irakasleak egingo dituen galderak lagun, arrisku egoerak identifikatuko dituzte, eta baita beldurra gutxitzeko kalean izan beharreko jokaera seguruak zeintzuk diren.

3. FASEA:

Haurrek kaleko edo jolas-parkeko egoera bat marraztuko dute, seguru eta beldur gabe sentitzen diren egoera izango da.

Jarduera bukatzeko, doinu alai bat entzuten duten bitartean gelako paretan jarriko dituzten egindako marrazkiak. 2.eranskinean doinu alaien iradokizunak daude.

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

Espazio publikoetan ematen diren egoera batzuk beldurgarriak dira arriskutsuak direlako:

- Azkar doazen autoak, balaztatzean zarata egiten dute.
- Ibilgailu eta oinezkoen arteko istripuak.
- Espaloitik dabiltzan bizikleta eta patineteak.

Gainera jokaera seguru batzuk ere identifikatuko dituzte.

- Arreta mantenduz ibiltzea.
- Ibilgailuak dabiltzan kaleak helduen eskutik helduta gurutzatzea.
- Oinezkoak eta ibilgailuak elkarrekin dauden guneetan adi egotea.



1. ERANSKINA

LEHEN FASERAKO MUSIKA-ZATIEN PROPOSAMENA

Réquiem for the gods
(Jainkoentzako requiema)

https://www.youtube.com/watch?v=2RqGeEsXJWY

Mugimendua/gaia: Drácula X / Apocaliptikoa. Réquiem for the Gods obrakoa da.

Autorea: Michiru Yamane

Piezaren iraupen osoa: 2.09

Jarduerarako gomendatzen den zatia: del 0.47 a 1.20



Hileta-martxa
(Musika-bandarako egokitzapena)

https://www.youtube.com/watch?v=H8gjcpEABBQ

Mugimendua/gaia: : Hileta-martxa. Si bemol maior Sonata obrakoa, 35 Opusa

Autorea: Frederic Chopin

Piezaren iraupen osoa: 8,54

Jarduerarako gomendatzen den zatia: hasieratik 1.10 minutura arte

O Fortuna, Carmina Burana

https://www.youtube.com/watch?v=GXFSK0ogeg4

Mugimendua/gaia: O Fortuna! Carmina Burana obrakoa da.

Autorea: Carl Orff

Piezaren iraupen osoa: 5,21

Jarduerarako gomendatzen den zatia: hasiera, eta batez ere, 1.42 minututik amaitu arte.

Man on fire soinu-bandako azken gaia.

https://www.youtube.com/watch?v=KPfJZolQOPU

Mugimendua/gaia: Azken gaia.

Autorea: Lisa Gerrard

Piezaren iraupen osoaa: 4,59

Jarduerarako gomendatzen den zatia: hasieratik 2.00 minutura arte

1. ERANSKINA. LEHEN FASERAKO MUSIKA-ZATIEN PROPOSAMENA

La Treizihme Revient, Diamanda Galas

https://www.youtube.com/watch?v=91lgRi1tTrA

Mugimendua/gaia: "La Treizihme Revient"

Divine Punishment / Saint of the pit obrakoa da.

Autorea: Diamanda Galas

Piezaren iraupen osoa: 5.04

Jarduerarako gomendatzen den zatia: pieza osoa, orokorrean. 2.55 minututik aurrera organoa hasten da.

Tocata i fuga, Bach

https://www.youtube.com/watch?v=T6BcvLS9gbM

Mugimendua/gaia: : lehen zatia

Tocata i fuga re minorrean obrakoa da.

Autorea: Johann Sebastián Bach

Piezaren iraupen osoa: 3.04

Jarduerarako gomendatzen den zatia: hasieratik 1.10 minutura arte.

Scrupus, Stoa

https://www.youtube.com/watch?v=QAUqEDW_53A

Mugimendua/gaia: Scrupus

Porta VIII obrakoa da.

Autorea: Grupo Stoa

Piezaren iraupen osoa: 4.20

Jarduerarako gomendatzen den zatia: hasieratik 2.00 minutura arte



12. JARDUERA

A ZER BELDURRA!

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

5-6 urte ooo

2. ERANSKINA

HIRUGARREN FASERAKO MUSIKA ALAI-ZATIEN PROPOSAMENA

Loreen balsa,
Piotr Ilich Tchaikovsky
https://www.youtube.com/watch?v=qCN4UX7_LfI



Udaberriko ahotsak,
Antonio Vivaldi
https://www.youtube.com/watch?v=s2lbGix2wtE

Udaberriko ahotsak,
Johann Strauss
https://www.youtube.com/watch?v=Vh0KkW42iiY

Wakt Disneyren filmeetako musika desberdinak.
https://www.youtube.com/watch?v=6PqZeQ-PxtY

12. JARDUERA

A ZER BELDURRA!

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

5-6 urte ○○○

13. JARDUERA ATSEGINA NAIZ

Iraupena gutxi gorabehera:

Ordubete.

Curriculumeko eremua:

Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

Curriculumeko helburua:

Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.

Curriculumeko edukiak:

1. Multzoa: Hitzezko eta idatzizko komunikazioa.

- Pertsona helduek eta haurrek eguneroko bizitzako egoeretan dituzten komunikazio-xedeak ulertzea eta, arian-arian, horietara egokitzea.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.

1 Maila *(Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketela).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Jarduera honen bidez besteekiko jarrera enpatiko eta atseginak izatea zein garrantzitsua den landuko da. Jarrera hau mantentzea oso garrantzitsua izango da, batez ere urduritasuna eragiten duten bideko arrisku-egoeretan.

HELBURUAK:

- Norberaren emozio eta sentsazioez jabetzea.
- Haserre-sentsazioaz hautematea.
- Adeitasun-sentsazioaz hautematea.

METODOAK:

Ipuina. Antzezpena. Elkarrizketa.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Koloretako klarionak.





JARDUERAREN GARAPENA:

1. FASEA:

Irakasleak klarionekin lurzoruan kale bat, bi espaloi, oinezkoen pasabide bat, oinezkoen semaforo bat eta zuhaitzekin espazio batzuk marraztuko ditu.

Taldea zirkuluan eseriko da.

Irakasleak Josuren istorioa kontatuko du.

Josu oso mutiko argia da, adi egoten da egiten dituen gauzetan . Baina, noizean behin, oso kontzentratuta egoten da bere gauzetan eta ez da konturatzen zer gertatzen den bere inguruan, eta hori kezkatzekoa da, batez ere kaletik dabilenean.

Irakasleak zera galdetuko du:

– Zer gerta daiteke kaletik hitz egiten edo jolasten distraituta ibiltzen bagara?

Gerta daitezkeen egoera eta ondorioak azalduko ditu irakasleak:

- Bidea gurutzatu behar dugula konturatu gabe ibiltzen gara.
  Ondorioa: balaztada edo istripua.
- Bidegorritik gabiltza bizikleta bat datorrela konturatu gabe.
  Ondorioa: harrapaketa eta biak erortzea.
- Espaloitik gabiltza eta ez dugu patinete bat datorrela ikusten.
  Ondorioa: harrapaketa eta biak erortzea.
- Oinezkoen semaforoa gorrian dago, baina ez dugu ikusten eta bidea pasatzen dugu.
  Ondorioa: istripua.
- Lanak egiten ari dira espaloian, hesi bat edo zulo bat dago, eta ez dugu ikusten.
  Ondorioa: erortzea.
- Pertsona bat gurpil-aulkian dator eta ez dugu datorrela ikusten.
  Ondorioa: istripua.



2. FASEA:

Kalean izaten diren arrisku-egoerak identifikatuta, haurrak zutik jarriko dira eta irakasleak istorioarekin jarraituko du:

Josu distraituta dabilenean, inguruan arrisku-egoerak izaten dira, bera ikaratzen dutenak, baina beste pertsona batzuk ere ikaratzen dira

- *Patinetean doan bat*
- *Txirrindulari bat*
- *Auto-gidari bat*
- *Gurpil-aulkian doan pertsona bat*
- *Bere laguntzaileak (ama, aita…)*

Pertsona hauek haserretu egingo dira, egoera arriskutsu bat bizi izan dutelako eta beldurra sentitu dutelako.

Boluntario batzuk egoera hauek antzeztuko dituzte, Josuren rola eta beste pertsonena antzeztuz.

Haur batek pertsona helduarena egingo du, eta autoz, patinetez, bizikletan edo gurpil-aulkian joango da pertsona hau… pertsona hau haserretu egingo da eta Josuri oihu egingo dio:

Zertan zabiltza!

Ez duzu begiratzen!

Kontuz ibili!



Beste ume batek Josuren erantzuna antzeztuko du. Josuk negar egingo du edo irainka edo oihuka erantzungo dio beste pertsonari.

Minutu batzuk pasa ondoren, pertsona helduaren rola antzezten duen haurrak oraingoan Josuri era atsegin baten hitz egingo dio:

Izutu egin naiz, kontuz ibili behar zara!

A zer sustoa! Min egin ahal nizun!

Josuren rola antzezten duten umeek ere modu atseginean erantzungo dute, distraituta zebiltzala onartuko dute eta barkamena eskatuko dute.

Barkatu, distraituta nenbilen!

Barkatu, ez naiz konturatu!

Sentitzen dut!

Antzezpena behin eta berriro errepika daiteke, ume guztiek parte hartu arte.

FASE 3:

Irakasleak galdetuko du:

- Nola sentitu dira istorioko pertsonak haserre zeudenean?
- Eta erantzunak atseginak izan direnean?

Ondoren, irakasleak kalean jarraitu beharreko jokaera seguru eta atseginen laburpen bat egingo du:

- Kalean zehar adi ibiliko gara.
- Trafiko seinaleak errespetatuko ditugu: oinezkoen semaforoa berdean dagoenean gurutzatuko dugu bidea.
- Bidea gurutzatzeko beti semaforo bat edo oinezkoen pasagune bat bilatuko dugu.
- Ikaratzen bagara, haserre eta oihuka hitz egin ordez, baretu eta atseginak izaten saiatuko gara.
- Ez bagara adi ibiltzen, guk beste pertsona batzuk ikaratzea gerta daiteke. Hau gertatzen denean hoberena atsegina izan eta barkamena eskatzea da.

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

- Arriskutsua da ibiltzean distraitzea.
- Kalea gurutzatzean gure arreta osoa jarri behar dugu, eta baita bizikleta eta patineteak dabiltzan lekuetan.
- Kalea segurtasunez gurutzatzeko oinezkoen pasabideak erabili behar ditugu, eta oinezkoen semaforoa berdean dagoenean gurutzatuko dugu.
- Ikaratzen garenean urduri jartzen gara, eta haserre. Baina, hobeto sentitzen gara barkamena eskatu eta atseginak garenean.

14. JARDUERA AITONA ETA LAINOA

Iraupena gutxi gorabehera:

Ordubete.

Curriculumeko eremua:

Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

Curriculumeko helburua:

Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.

Curriculumeko edukiak:

1. Multzoa: Hitzezko eta idatzizko komunikazioa.

- Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab.

4. Multzoa: Arte-komunikazioko beste modu batzuk.

- Genero eta estilo askotako obra batzuk entzutea.

Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.

1 Maila *(Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketela).*

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Aitona eta lainoa istorioaren bidez, bide-arrisku egoeretan ematen diren beldur-egoerekin lotura egingo da.

Simulazio eta jokoa erabilita, lasaitzeko oinarrizko arnasketa-teknika landuko da, antsietateak eta urduritasunak eragindako jokaera arriskutsuak ekiditeko.

HELBURUAK:

- Beldur garenean zer sentitzen dugun esploratzea.
- Beldur garenean izan ditzakegun erreakzio oldarkorrak identifikatzea.
- Arnasketa kontzientea praktikatzea.

METODOAK:

Ipuina. Antzezpena. Elkarrizketa.

BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Bozgorailuak.



JARDUERAREN GARAPENA:

1.FASEA: IPUINAREN LEHEN ZATIA

Haurrak zirkuluan eseriko dira, aitona eta lainoaren ipuina entzuteko:

Peio oso mutiko ona eta alaia da.

Egun baten Peio eta bere aitonak izozki-dendara joatea pentsatu zuten, izozki bat erostera.

Bidean zehar poz-pozik doaz biak hitz egiten. Kale zabal batera iritsi dira, eta zeharkatu behar dute. Oinezkoen semaforoa berde jarri arte itxaron dute eta igarotzen hasi dira.

Auto bat ziztu bizian dator, balaztatu eta geratu egin da izugarrizko zarata eginez.

Ia lurrera bota ditu!

A zer beldurra! Nolako sustoa!

Peio dardarka hasi da, beldurrez negar egiten hasi da.



2. FASEA: ANTZEZPENA

Haurrek ipuina antzeztuko dute, beldurraren sentsazioa bizi izateko.

Irakasleak galdera batzuk egingo ditu:

- Beldurrak urduri jartzen gaitu?
- Negar egiten dugu?
- Ea nola egiten dugun negar…
- Peiok aitonaren eskua askatuko du?

Irakasleak haur bat helduko du eskutik eta bat-batean askatuko du.

Oihu egiten dugu?

Ea nola oihukatzen dugun…

Ikusteari eta entzuteari uzten diogu?

Ea nola egiten dugun inor ez ikusteko eta esaten dutena ez entzuteko…

Haurrek ondorioztatuko dute beldurtzen garenean tontakeriak egin ditzakegula, adibidez, ez ikustea edo esaten digutena ez entzutea.

3. FASEA: IPUINAREN BIGARREN ZATIA

Ipuinarekin jarraituko dugu:

Peio urduri dago oraindik eta aitonak esan dio bera ere txikia zenean batzuetan beldurtzen zela. Aitonak esan dio behin oso laino handi bat ikusi zuela, zuria zen, kotoia bezain leuna. Laino hura ikustean, aitonak lainoa bezala puztu nahi izan zuen eta sakon hartu zuen arnasa. A zer ustekabea! Arnasa sakon hartzean lasaitu egin zela nabaritu zuen.

Aitonak Peiori galdetu dio: "Peio, nahi al duzu lainoa bezala puztea, nik txikitan egin nuen bezala?".

Sakon hartu dute arnasa eta Peio jadanik ez dago dardarka eta negar egiteari utzi dio.

Peio eta aitona badoaz poz-pozik izozki-dendara.

Eskerrik asko, aitona!

4. FASEA: ARNASKETA

Haurrak bikoteka jarriko dira. Bikotekide bat lurrean etzungo da eta bestea bere alboan eseriko da, lagunaren sabelean eskua jarrita.

Erlaxazio musika bat entzungo da (*1. eranskinean* loturak).

Lurrean etzundako haurrek sabela laino bat bezala puztuz arnastuko dute.

Eserita dauden haurrek sabela nola igotzen eta jaisten den nabarituko dute.

Hezitzaileak emateko argibideak:

- Sentitu airea zure sudurretik sartzen.
- Sentitu zure sabela laino bat bezala puzten.
- Sentitu zure sabela nola husten den.

Haurrak lekuz aldatuko dira, lurrean etzanda egotea eta alboan eserita egotearen bizipena izateko.

5. FASEA: ELKARRIZKETA

Irakasleak arnasketak egin ondoren nola sentitzen diren galdetuko die haurrei.

- Gogoratzen zarete nola sentitzen zineten arnasketak egin aurretik?
- Nola zaudete orain?
- Zer sentitu duzue lurrean etzanda egon zaretenean?
- Zer nabaritu duzue bestearen sabelaren gainean eskua izan duzuenean?

Esperientzia honen ondoren haurrek ondorioztatuko dute pertsona bat ikaratu, haserretu eta urduri jartzen denean, sabela puztuz arnasten badu lasaitu egingo dela.

Irakasleak kalean zehar gabiltzanean adi joan behar garela gogora araziko du. Oinezkoen semaforoa berde dagoenean ere eta oinezkoen pasabidetik gurutzatu nahi badugu ere, autoak, motorrak eta autobusak gelditu arte itxaron behar da gurutzatzeko.

JARDUERAREN IKASPENAK:

Jarduera bukatzean, haurrek zera ikasiko dute:

- Kaletik goazenean seinale guztiak jarraitu eta ongi gurutzatzen badugu ere, egoera arriskutsuak eman daitezke.
- Egoera hauek ematen direnean erraza da beldurtzea, ikaratzea.
- Ikaratuta bagaude hobeto sentitzeko zerbait egin dezakegu, adibidez, sakon arnastu, sabela laino bat izango balitz bezala puztuz.

1. ERANSKINA

ARNASKETARAKO MUSIKA PROPOSAMENA

Hainbat. Hasieratik.

https://www.youtube.com/watch?v=upOr6RCWGJg

Hainbat. Hasieratik.

https://www.youtube.com/watch?v=3lWb0wpbNi0

14. JARDUERA

AITONA ETA LAINOA

HONETAN ERE... SEGURU

Haur Hezkuntzako jarduerak

5-6 urte ooo

Material honen egileak:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

Formaccio

tailer kreatiboa
taller creativo
creative workshop
tk

2019

AURKIBIDEA